




Blitz
Eskolako
Liburutegiko
Bilduma
Sorta
horia



Ularmenezko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak

ÁNGEL SANZ MORENO



**Nafarroako
Gobernua**



3 Blitz sorta horia

.....

**Uiermenezko irakurketa
eta DBH-KO
eskola testuak**

ARGITARATZAILEA
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

EGILEA
Ángel Sanz Moreno

BILDUMAREN ARDURADUNA
Curriculum Diseinu eta Garapenerako U.T.a

DISEINUA
Asis Bastida

INPRIMAKETA
Ona Industria Gráfica, S.A.

L.G. NA - 2490/2003
ISBN 84 - 235 - 2443 - 4



**UERMENEZKO irakurketa
eta DBH-KO
eskola testuak**



ÁNGEL SANZ MORENO

AURKEZPENA

Blitz irakurtzearen alde sail horiko titulu berri honek irakaslek beren irakasgaiak emateko lagungarri izan nahi luke ulermenezko irakurketarako estrategiak erabiltzea erraztuz.

Kasu gehientsuenetan maila eta arlo guztietako irakasleek testuliburuak erabiltzen dituzte, hainbat modutara erabili ere. Liburu honen egileak orientazio erraz batzuk itxuratu ditu testuliburuaren ulermenezko irakurketak lagundu dezan ikasleek arlo bakoitzeko edukiak egoki ikasteko.

Hizkuntza irakasleek irakurtze trebetasunak irakasten dizkiete ikasleei; hori, ordea, askotan ez da aski izaten ikasleek arlo guztietako testuak ulertuz irakur ditzaten. Irakasgai bakoitzeko irakasleei dagokie, beraz, ikaslea irakurtzearen bidean gidatzea, arlo horretako edukiak ongi barrendu eta testuliburuetako ideien egitura ulertzeko.

Bestalde, ohart gara DBHko irakasleek, hizkuntzakoek ezik, ez dutela berariazko prestakuntzarik izan ulermenezko irakurketa irakasteko beren ikasleei. Esperantza dugu obra hau, *Ulermenezko irakurketa eta DBH-ko testuak* deitua, lagungarri izanen dela irakurtze praktikak hobetu eta hortaz ikasleen prestakuntza maila goratzeko.

Jesús Laguna Peña

HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARIA





AURKIBIDEA

Pagina

7	Sarrera
9	1. IRAKURKETAREN OINARRI TEORIKOAK
10	1.1 Irakurriaren ulermenari buruzko hainbat hausnarketa
14	1.2 Irakurriaren ulermenaren teoria
18	1.3 Nola hobetu ulermenezko irakurketa
23	2. APLIKAZIO PRAKTIKOA
24	2.1 Ikasgaiaren edo unitate didaktikoaren egitura globala
30	2.2 Atalen egitura
41	2.3 Lerroaldearen egitura
50	2.4 Esaldien egitura
53	Bibliografia

SARRERA

Ikastetxeetan hainbat eta hainbat egoera sortzen dira, ikasleei irakurtzen dutena hobeto ulertzen irakasteko baliagarriak direnak, hala nola ikerketa lanak, eskolako liburutegian dokumentuak kontsultatzea, ikasteko teknikei buruzko tutoretzak, klaseko koadernoak, kultur bidaiak eta abar.

Baina, horretaz gain, bada ikasteko beste tresna arrunt bat, egoki erabiliz gero balio didaktiko handia duena. Tresna hau testuliburua da. Testuliburua ikastetxeetako irakurketa planean erabil daiteke ikasleei euren hizkuntza gaitasuna garatzen laguntzeko eta, oro har, curriculumeko arlo guztietako testuak ulertuz irakurtzen irakasteko.

Lan honek honako helburuak ditu: irakasleek irakurriaren ulermenaren teoriari eta bere estratergiei buruzko oinarritzko kontzeptuak ezagutzea, estratergia hauek haiek erabiltzen duten metodologiari egokitzea eta estratergia hauek era interdiziplinarrean landuz gero nolako indarra duten jabetzea.

Lan hau Bigarren Hezkuntzako arlo guztietako irakasleei zuzenduta dago. Kontzeptu linguistikoak eta semantikoak errazten saiatu gara, irakurriaren ulermena bezalako gai zaila eta korapilatsua hizkuntzalariak ez diren irakasleen eskura jartzeko aldera.

.....



1

IRAKURKETAREN OINARRI TEORIKOAK

Lan honen lehen zatian ulermenezko irakurketari buruzko hainbat hausnarketa pedagogiko eta didaktiko azaldu nahi ditugu, baita gaur egungo eredu teorikoen laburpen bat ere. Testu motak birpasatu ondoren, irakurriaren ulermena definituko dugu eta irakurketa ikasgelan lantzeko hainbat prozedura emango ditugu.

Atal bakoitzaren amaieran edukiaren ideia nagusiak azaltzen dira laburpen koadro batean.


1.1 Irakurriaren ulermenari buruzko hainbat hausnarketa

Orokorrean, eta era oso sinplean, esan dezakegu bi direla liburu, aldizkari, dokumentu edo web orri bat irekitzera eta irakurtzera bultzatzen gaituzten arrazoi nagusiak: ondo pasatzea edo informazio jakin bat lortzea.

Eskolan, gure ikasleek kontzeptuak eta berauen arteko harremanak ulertzeko eta berenganatzeko irakurtzen dute. Beraz, irakurketa eta idazketa dira ikasleek euren zereginetarako erabiltzen dituzten oinarrizko tresnak, eta trebetasun intelektual hauen bidez beste guztiak antolatzen dira. Carlos Pujol idazleak muturreko adierazpen hau egin zuen: «Agian irakurtzen eta idazten ikastea da ikastea merezi duen bakarra, agian hauxe da mundu guztiari irakatsi behar zaion gauza bakarra, bizitza ohoragarria izan dezan. Gure unibertsitateetako ikasleek ikasketak amaitzean duintasunez irakurtzen eta idazten jakingo balute, pozik egoteko moduan ginateke; gainerako guztia berez etorriko litzateke, liburuetan aurkitzen baita...».

Baina hori ikastea zaila da eta etengabeko esfortzua eskatzen die, bai ikasleari bai irakasleari. Azken honek lan hau zaila dela onartu eta baliabideak eta teknikak bilatu behar ditu irakurketa emankorra izan dadin: testuan zehar egiten den bidaia mentala, zeinen bidez irakurlea errealitate subatomikoaren munduan, zelulen barne-barnean, urruneko galaxietan, historian, teknologian, artean edo herri baten literaturan barneratzen den.

Irakurketa da Arkimedesek bilatzen zuen sostengunea, mundua mugiarazten duena. Baina irakurketak ez du kanpoko mundua mugiarazten, norberaren barne mundua baizik, adimena eta sentimenduak higiarazten dituena.



ZERGATIK EZ DUGU ULERTZEN?

Testu bat hartzen dugunean, irakurriko duguna ulertzeko itxaropena dugu. Horrela ez bada, arazoa sortzen da. Askotan ezin dugu azaldu zergatik ikasle batek irakurritakoa ez duen ulertzen, eta guk emandako erantzuna («Irakur ezazu arretaz!» «Behin eta berriro irakur ezazu, ulertu arte!» eta abar) ez dela nahikoa sentitzen dugu. Adibide hauek irakasleek betidanik eman dituzten aholkuak dira eta ikasle batzuekako lagun-garriak izan badira ere, beste batzuekako ez.

Hainbat jakintzagai zientifikok eta humanistikok aztertu dute giza-fenomeno konplexu hau, hots, irakurriaren ulermena. Psikologia, linguistika, testuen didaktika, erretorika, eta abar saiatu dira ikasleei ulertzen ez dutenean laguntzeko aholkuak bilatzen, baina ez dute formula magikorik aurkitu.

BURUA ONGI ANTOLATUTA

Montaignek zioen nahiago zuela «buru jantzia buru betea baino». Dilema hori urteetan zehar eta, are gehiago, mendeetan zehar planteatu izan da. Gaur egun, psikologia kognitiboaren eta pedagogiaren arloko azterketek eta ikerketek erakutsi dute dilema hori ez dela arazo, bi ikusmolde horiek bata bestearen osagarri baitira: informazioa modu egokian erabiltzeko buru jantzia behar da eta, era berean, buru jantzi batek elkarrekin loturiko kontzeptu sistemak eratzen ditu, horretarako euskarri ezberdinetatik ateratako informazioa erabiliz.

Horrela bada, irakurketa da gure buruak idazkietatik ateratzen dugun informazioa ordentatzeko, antolatzeko, hierarkizatzeke, uztartzeko eta baloratzeko erabiltzen duen tresna nagusienetakoa. Ezinezkoa da norbait jantzita egotea kultura eskuratzeko tresna nagusia, hots, irakurketa, ez badu menperatzen.

Baina testu bat ulertzeko aurretiko hainbat ezagutza izan behar dira, begien aurrean dugun informazioa interpretatu eta informazio horri zentzua aurkitu ahal izateko. Irakurgai dugun gaiaren inguruko kontzeptu eta esanahi sare bat ez badugu aurretik geureganatu, zaila izango da irakurritakoa ulertzea.

Bada, Montaigneren aforismoa gaur egun ere indarrean da, gogorarazten baitigu alferrik dela irakaslea ikasleek ezaguerak metatzearekin bakarrik arduratzea, ezagutza horiek ulertu, antolatu eta barneratzearen kezkarik gabe. Irakasle orok, irakasgai guztietakoak alegia, dute ikasleak intelektualki prestatzeko konpromisoa, eta horrexegatik ikaskuntza autonomoa ahalbidetuko duten tresnak eskaintzeko betebeharra dute.

Prestakuntza intelektual oneko pertsonen profila aztertzen badugu, ikusiko dugu irakurriaren ulermena oso garatua duen irakurle baten profilarekin bat datorrela, zeren eta irakurritakoa ulertzea ezinbestekoa baita, heziketa ona eta, oro har, kultura aberatsa, lortzeko.

.....

Ongi prestatutako buruak nolabaiteko antolamendua eskatzen du ordea, kontzeptuak ez baitira bertan era kaotikoan eta itxuragabeen metatzen. Irakurtzeak zentzu kritikoa zorrotzen du eta bestelako jarduera intelektual gutxi bezala laguntzen digu burua antolatzen. Horretaz gain, ahalbidetzen digu sailkapenak eta hierarkiak osatzea, mamia bilatzea, garrantzitsua ez dena parentesi artean jartzea, laburbiltzea eta abar. Irakurritakoa ulertzen dugunean, ezezaguna zaigunetik ezagutu behar dugunerainoko bidea egiten dugu, ulermena ahalbidetuko duen tentsio intelektuala sortzen dugu eta irakurtzen dugunaren zentzua aurkitzeko esfortzua egiten dugu. Ongi prestatutako buru batek bakarrik burutu dezake prozesu hau modu egokian.

ULERMENA: BANAKAKO EKINTZA

Irakasleak, hainbat baliabideren bidez, ikaslea ulermenaren atarian jarri nahi du, handik aurrerakoa berak bakarrik egin baitezake. Ulermena ekintza pertsonal eta errepikaezina da; zerbait sakonean ulertzen denean, beste ikuspegi batzuetatik uler daiteke, baina aurreko egoerara itzultzea ezinezkoa da. Zenbat eta hobeto ulertu kontzeptu bat, orduan eta errazago gogoratuko da. Hauxe da ikaskuntza esanguratsuen oinarritzko printzipioa.

INFORMAZIOA ETA ULERMENA

Irakasleak informazioa modu argian, logikoan eta antolatuan eman dezake, baina honek ez du bermatzen informazio hori ulertuko denik, ulermena ikasleak dituen kontzeptu eta eskemen arabera ere izango baita. Izan ere, hauek dira informazioaren zentzua aurkitzea eta kontzeptuak ulertzea eta zabaltzea ahalbidetzen diotenak.

Bi dira informazioaren transmisio bideak: irakaslearen ahozko azalpenak eta material didaktiko ezberdinen irakurketa (ez bakarrik testuliburua, baita beste dokumentu batzuen irakurketa ere, hala nola mapak, argazkiak, grafikoak, web orriak eta abar). Irakasleek ikasleen ulermen linguistikoa sendotu behar dute, hauek kontzeptuak uler ditzaten.

ULERMENARI BURUZKO HAINBAT IKUSPEGI DIDAKTIKO

Irakasle guztiak ez dituzte edukiak modu berean azaltzen. Oro har, irakasle adituek, duten eskarmentuari esker, kontzeptuen azalpena ikasleen ezaugarrietara egokitzen dute eta horiek ulertarazteko tresnak menperatzen dituzte. Badakite zeintzuk diren alderdi zailenak, baita eduki baten osagaiak xehatzen ere, adibideak jartzen dituzte, edukiak eguneroko bizitzako esperientziekin edo lehendik ikasitakoarekin lotzen dituzte, erritmoa eta aurrerapena ikasleen ahalmenen arabera ezartzen dituzte, galderak egin eta azalpena ulertu den egiaztatzen dute eta abar.

Aitzitik, hainbat irakasle ez dira jabetzen haien ikasleek dituzten ikasteko zailtasunez eta, horretaz ohartzen direnean, azalpena errepikatu besterik ez dute egiten, metodo-

logia berbera erabiliz. Orokorrean, ikasleek arazo gehiago dituzte halako irakasleekin, ulertzea ez baita lortzen gauza bera behin eta berriro modu berean errepikatuz, baizik eta ulertarazteko metodo egokia bilatuz.

IRTENBIDERIK EZ DUTEN BI METODO

Egoera honen aurrean, irakasleek bide ezberdinak probatu dituzte ikasleak uler dezan lortzeko. Hauetako bi irtenbiderik gabeko metodoak dira, irakurriaren ulermenaren didaktikaren cul de sac-a, orain ikusiko dugunez:

Batzuetan, ikasleek testuliburua badute baina gutxi edo batere ez dute erabiltzen. Irakaslea duen eskarmentuaz eta ongi egite profesionalaz baliatzen da eta ahoz azaltzen ditu arloko edukiak; ikasleek apunteak hartzen dituzte eta horien bidez irakasgaia ulertu eta ikasten dute.

Jokamolde didaktiko honekin arazoaren alderdi bat, hots, ulermenarena, konpontzen da, baina ez da erabateko konponbidea, ez baitu ikasleengan testu idatziak bakarka ikasteko gaitasuna garatzen eta, ikaskuntzari dagokionean, irakaslearekiko gehiegizko menpekotasuna baitute.

Sarriago gertatzen da aurreko egoeraren kontrakoa. Irakaslea testuliburuari lotzen zaio erabat eta, soilik liburua material didaktiko ezin hobea bada, ikasleak irakasgaia behar bezala ikasi ahal izango du.

KONPONBIDEA: ELKAR GURUTZATZEN DIREN HAINBAT BIDE

Didaktika kontuetan ez dago egi unibertsalik, batzuetan funtzionatzen duten eta beste batzuetan funtzionatzen ez duten praktikak baizik. Batzuetan metodologia zehatz batek irakasle batekin funtzionatzen du eta, berriz, beste batekin ez; edo are gehiago, irakasle berak ez du emaitza bera lortzen talde guztietan metodologia berbera erabiliz. Dena dela, ikaslearen ikaskuntza autonomoa bultzatu behar delakoan gaude, testu mota ezberdinen ulermenezko irakurketa landuz.

Bestalde, metodologia bera ez da baliagarria kontzeptu guztiak ikasteko. Batzuetan irakaslearen ahozko azalpena da komenigarriena eta beste batzuetan, berriz, egokiagoa da dibulgazio irakurgaiak erabiltzea, material grafikoak aztertzea edo web orri bat begiratzea. Bata ez da bestea baino hobea. Kontua da metodologia egokia aurkitzea, ikasleak arloko kontzeptuak uler ditzan. Baina horretarako beharrezkoa da ikaslearengan irakaslearen ahozko azalpenak nahiz testu idatziak ulertu ahal izateko behar den gaitasun linguistikoa garatzea.

.....

Ondorio gisa

- Ulermenezko irakurketa lagungarria da intelektualki prestatzeko.
- Ezaguerak ulermenezko irakurketaren baldintza eta ondorio dira aldi berean.
- Testuen antolaketaz jabetzeak hauek hobeto ulertzen lagutzen du.
- Ikasleek testuak norberaren esfortzuaz ulertu behar dituzte, baino irakasleak lagun diezaieke, irakurketarako estrategiak eta baliabideak erakutsiz.
- Irakasleak bere irakasgaia hobeto ulertzen erakus diezaieke ikasleei, irakurriaren ulermenaren baliabideak erabiliz.
- Komenigarria da ikasleak irakaslearen ahozko azalpenetatik jasotako informazioa testu idatzietan dagoenarekin bat datorren egiaztatzea.

1.2 Irakurriaren ulermenaren teoria

EREDU TEORIKOAK

Gaur egun, irakurketaren psikologiak hiru eredu teoriko ditu ekintza konplexu hau azaltzen saiatzeko: goranzko ereduak, beheranzko ereduak eta eredu elkarreragileak.

Goranzko ereduen arabera, irakurketa prozesu sekuentziala da, hizkuntza unitate errazenetatik konplexueneraino doana, hots, hitza, esaldia, testua. Bide hau norabide bakarrekoa da; beraz, kontrako prozesua ez du kontuan hartzen.

Teoria honen arabera, irakurketa gaitasun deskodetzaile eta sekuentzial errazen multzo bat da, lexikoa deszifratzea ahalbidetzen duena. Prozesua ikusmenerako estimulu batekin hasten da. Jarraian irudikapen ikonikoa egiten da, eta hau behar bezala deskodetzean, erregistro fonematikoa sortzen da. Ondoren hizki multzoa esanahiekin lotzen da. Sarrera lexikal hauek oroimen primarioan gorde eta esaldi zentzudunak osatuz antolatzen dira. Esaldi hauek ere memorian gordetzen dira eta irakurritako testuen eduki zabalagoei esanahia ematen diete.

Hainbat ikertzailek eredu honek dituen mugak egiaztatu dituzte ordea, eta azpimarratu dute hitzak azkarrago irakurtzen direla irakurlearendako zentzua duten esaldietan txertatuta egonez gero. Horretaz gain, eredu honek ez du azaltzen zergatik irakurle ezberdinek testu bera modu ezberdinetan uler dezaketen.

Aitzitik, *beheranzko* ereduetan azpimarratzen dena da, edozein gauza irakurtzerakoan irakurleak berak jarri behar duen informazioa, ikusizkoa ez dena, testuak eskaintzen duen ikusizko informazioa ulertu ahal izateko. Irakurle onek ez dute hitzez-hitz ira-

kurtzen, prozesu lineal bati jarraikiz. Aldiz, esanahiak irakurtzen dituzte. Eta irakurleak nola erabili bere informazio ez-ikusizkoa, irakurketaren eraginkortasuna handiagoa edo txikiagoa izango da.

Eredu honek, bere aldaera eta zehaztapen guztiekin, kontuan hartzen ditu irakurketa prozesua ulertzeko hainbat faktore garrantzitsu, baina beste batzuk ez ditu azaltzen, hala nola, deskodetzearekin lotura duten maila baxuko prozesuen garrantzia, hitz isolatuen ulermena eta abar.

Eredu *elkarreragileek* gorakada nabaria izan dute azken urteotan. Eredu hauek ulermena eragiten duten hainbat faktoreen *elkarreragiketa* dute oinarritzat.

Testuak dakarren informazioaren zailtasuna kontuan hartzen dute, baita irakurleak ekartzen duen ez-ikusizko informazioa ere. Baina, batez ere, bi faktore horien arteko harremanak aztertzea eta azaltzea dute xedetzat.

Ez-ikusizko informazioa askotarikoa izaten da: irakurketaren deskodetzearen eta testuen egituraren arauetara buruzko ezagutza, idazlearen asmoa, etab.

Horren haritik, Mc Clelland-ek teoria alternatibo bat proposatu du: *prozesaketa meta-korraren teoria*. Teoria honen arabera, irakurketa prozesu aktiboa da, testu baten esanahia eta zentzua era aurrerakorrean bilatzen dituena. Irakurlea subjektu aktiboa da, eta irakurritakoaren aurrean bere ideiekin, eskema mentalekin, itxaropenekin eta motibazioekin jartzen denez, haren ulermena bideratzen duten hipotesiak eta inferentziak sortzen ditu. Hori dela eta, onartu behar da testuaren egitura semantikora hurbiltze-maila bat baino gehiago daudela. Autore honek azpimarratzen du, halaber, oinarritzko prozesuen automatizazioa dela, bai hautemate-prozesuena, bai deskodetze-prozesuena, irakurketa eraginkorra izan dadin laguntzen duten faktoreetako bat. Zenbat eta gehiago mekanizatu prozesu horiek, orduan eta baliabide kognitibo gehiago izango ditu subjektuak testua semantikoki ulertzeko.

TESTU MOTAK

Azken aldian ikerketa askok aztertu dituzte testu mota ezberdinen arteko harremanak, baita testu mota bakoitza ulertzeko zailtasunak ere.

Testu motei dagokienean, Werlich-en tipologia da osatuenetako bat. Berak bost kategoria proposatzen ditu: *deskripzio-testuak, narrazio-testuak, azalpenezko testuak, argudio-testuak eta jarraibide-testuak*. Horietako bakoitzak berezko egitura du. Hala, narrazio-testuak azalpenezkoak baino ulerterrazagoak dira, espazio-denborak eta kausak horretarako laguntza ematen baitute. Azalpenezkoek, berriz, egitura konplexuagoa eta dibertsifikatuagoa dute eta oro har irakurlearendako informazio berria eta ezezaguna dakarte. Horretaz gain, irakurleek testu hauekiko urruntasun afektiboa sentitzen dute.

.....

Ikasleek erabiltzen dituzten testu gehienak azalpenezkoak izaten dira. Eta, hauen artean, batzuek gai bati edo gai baten alderdiren bati buruzko informazio zerbaitua eta ordenatua dakarte eta beste batzuek, berriz, kausa-efektu harremanen arabera egituraturatutako hainbat kontzeptu aurkezten dituzte, inplizituki edo esplizituki; zenbaitek arazo bat eta arazo horren irtenbide bat edo gehiago planteatzen dituzte eta badira ere ideien, egoeren, izakien eta abarren arteko parekotasunak eta ezberdintasunak azaltzen dituzten azalpenezko testuak. Tipologia hau ezagutzeak irakurketa bideratzen lagun diezaioke irakurleari: informazioa bilatu, inferentziak eta hipotesiak egin eta irakurritakoari zentzua antzeman.

TESTUAREN IRAKURGARRITASUN SUBJEKTIBOA

Testu on baten ezaugarri garrantzitsuenetako bat *irakurgarritasun subjektiboa* da (*irakurgarritasun objektiboaren* aldean, azken hau testuaren ezaugarri tipografikoei bakarrik baitagokio). Irakurgarritasun subjektiboa irakurlearen baldintza subjektiboei buruzkoa da, edo hobeto esanda, irakurle jakin batek testu bat ulertzeko duen aukerari buruzkoa. Moles-ek honako definizioa eman du: «testu batek azkar irakurria izateko eta erraz ulertua izateko duen gaitasuna».

Eredu elkarreragileen arabera, irakurgarritasun subjektiboak harremanetan jartzen ditu testuaren egitura eta subjektuak testuaren edukiaz jabetzeko dituen ezagutza eta gaitasuna.

Horretaz gain, esan dezakegu badirela ezagutza edo gaitasun berak dituzten pertsonen zuzendutako testuak. Kasu honetan, hainbat formula asmatu dira irakurgarritasun subjektiboa kuantifikatzeko eta, horrela, eskola liburuetan testu mota bat edo bestea sartzea komeni den baloratzeko.

Gaztelaniari dagokionez, Fernández Huerta pedagogo espainiarrak egokitutako Fleschen formula eta Spaulding-en formula ditugu. Azken hau gaztelania bigarren hizkuntzatzat dutenei zuzenduriko testuen zailtasuna balioztatzeke asmatu zen.

IRAKURRIAREN ULERMENAREN GOI-MUGA

Orain arte esandakotik erraz ondoriozta daiteke edozeinek ez duela edozein testu ulertzen. Guztiok gure goi-muga daukagu irakurketari dagokionean, irakurgaien edukia-ri buruz dugun ezagutzak zehazten duena. Testu batek muga horretatik goitiko maila duenean, irakurlea gogor saiatuko da berau ulertzen aldi batez, baina gero alde batera utziko du, goibel eta etsiturik. Aitzitik, testua errazegia bada, ez dio nobedaderik ekarriko irakurleari eta, horren ondorioz, irakurketa lan aspergarri bihurtzen da eta ez du atseginik ematen.

Irakurketa eraginkorra egin nahi bada, gure goi-mugaren eta behe-mugaren arteko puntu distantziakide batean kokatzen diren testuak aukeratzen saiatu behar dugu, hots,

gure ideiekin lotura dutenak eta, hauek abiapuntuzat hartuta, aurrera jo eta ekarpen berriak egiten dituztenak.

Gure ikasleen irakurriaren ulermenari dagokionean, adinari eta ikasmailari dagozkion ezagutzak sartu aurretik beharrezkoa da abiapuntua ezagutzea.

IRAKURRIAREN ULERMENAREN DEFINIZIO BAT

Aldez aurretik esan behar da irakurtzeko gaitasuna hobetzeko era askotako teknikak eta prozedurak daudela eta bakoitzak bere ezaugarrietara, irakurtzeko ohituretara, hizkuntza gaitasunera eta adimenera egokitu behar dituela. Baina eraginkorrak diren teknika eta prozedura guztiek komunean dute irakurketa aktiboa ahalbidetzen dutela, non irakurlea testuaren edukiarekin sakonki inplikatzan den, azaleko irakurketa eta irakurketa inperzonal sahestuz.

Testu bat ulertzen dugu berau deskodetzearen bidez bere zentzua antzeman, geure buruan irakurritako testuaren paraleloa birreraiki eta testu horri zentzua ematen diogunean. Eskuarki, irudikapen mental hau sorburu testua baino laburragoa izan ohi da.

Testu baten ulermena honela defini daiteke: prozesua, zeinen bidez irakurlea eduki semantikoaren egitura hierarkikoaz jabetzen den. Testu idatzian ideiak era lineal eta sekuentzian agertzen dira, baina horiek ulertzeko ez da irudikapen espazialik ez lineal egin behar, irudikapen semantikoa baizik, non ideiak beste ideia garrantzitsuago batzuei lotuta edo haien jarraipen gisa irudikatzen diren. Ulermenaren azalpen honetan funtsezkoa da ideiak testu osoaren zentzuari lotuta balioztatzea.

Bada, irakurle txarra lan hauetan porrot egiten duena da. Ez du lortzen egitura hierarkiko hori antzematea eta soilik ideien segidari jarraitzen dio, hauek zehaztu edo balioztatatu gabe.

Ondorio gisa

- Irakurriaren ulermenaren eredu elkarreragileak irakurtze prozesuan esku hartzen duten osagai guztiak lotzen ditu.
- Egituraren arabera, testuak honela sailka daitezke: deskribapen-testuak, narrazio-testuak, azalpenezkoak, argudio-testuak eta jarraibide-testuak.
- Testu baten irakurgarritasun objektiboak ez du bermatzen haren irakurgarritasun subjektiboa. Azken hau bai testuaren bai irakurlearen baitan dago.
- Irakurleak aldez aurretik dituen ezagupenek baldintzatuko dute, hein handi batean, testu baten ulermena.
- Testu bat ulertzeko, haren ideien arteko harremanak mentalki ezarri behar dira, eta horrekin batera, testuaren zentzuaz jabetu behar da.

.....

1.3 Nola hobetu ulermenezko irakurketa

Irakasle askok nahi dute beren ikasleek, haiek emandako ahozko azalpenez gain, testu idatziak ere ulertzea, eta horretarako irakaskuntza *jardunbide onak* praktikatzan dituzte, hau da, irakurriaren ulermena hobetzeko eraginkorrak diren jarduera multzoa. Atal honetan horietako zenbait aztertuko ditugu.

LABURPEN ON BATEN GARRANTZIA

Irakasle batek bere ikasleei eskatzen dienean testu bat irakurtzeko eta haren bertsio laburtua sortzeko, gaitasun gutxien duten ikasleek informatikaren eraginez «ebaki eta itsatsi» izena hartu duen estrategia erabiltzen dute. Garrantziarik ez duten esaldiak edo esaldi zatiak ezabatzen dituzte eta gainerakoa dagoenean uzten dute, gehienez ere sintaxian edo hitzen batean aldaketa txikiak eginez. Honen emaitza gaizki elkarturiko ideia pobre eta loturarik eta jarraipenik gabekoen multzoa da.

Aitzitik, irakurle gaituek beste estrategia bat erabiltzen dute, estrategia *landua* dela esan genezakeena. Testu sintetiko berria sortzen dute, jatorrizko testuaren ideia guztiak kontuan hartzen dituzten adierazpide orokor eta abstraktoagoak erabiliz. Kasu honetan testua era aktiboan manipulatzan da, irakurleak bere ideiak testuan agertzen direnekin elkarreraginean jarri, testuko ideiak hierarkikoki antolatu eta orokortasun handiagoz azaltzen ditu.

Eta orain ondoko galdera planteatu behar dugu: Baliagarriak al zaizkio irakurleari berak prestatu ez dituen laburpenak? Ikasle askok, ahalegin intelektualak saiheste aldera, beste norbaitek utzitako laburpenak edo apunteak erabiltzen dituzte, horrela edukiez azkar jabetuko direlakoan. Askotan ordea, kontzeptuak ulertu ahal izateko beharrezkoa da abiapuntura itzultzea, hots, ideiak eta kontzeptuak bere osotasunean dituen jatorrizko testura.

Izan ere, laburpenekin erakitzen ari den etxearen aldamiorekin bezala gertatzen da: behin etxea eraikita eta sendotuta, aldamiok ken daitezke, jada ez baitira beharrezkoak. Era berean, testuaren zentzua ulertzea ahalbidetzen duen laburpena egiten denean, bertsio horrek bere balioa galtzen du hein handi batean eta, gehienez ere, oroigarri edo baliabide mnemotekniko gisa bakarrik balioko du. Horregatik diogu laburpenak inoiz ezin dezakela ordezkatu irakurtze prozesua.

GALDERAK EGITEAREN BALIOA

Gaitasun gutxiko irakurleak irakurketa lineala egiten du, alderdi partzialak antzematen ditu eta haiekin irakurritakoaren irudikapen mentala egiten du, *collage* baten moduan. Askotan ez da konturatzan testuaren zentzua ulertu ez izanaz, jatorrizkoa aitzakizatzen hartuta beste testu bat asmatu izanaz, nolabait esateko.

Jabetzeko gaitasun metakognitiboa garatzeko komenigarria da *autogaldeketa* maiz erabiltzea. Hainbat ikerketa esperimentalek egiaztatu dute haurrei, nerabeei edo helduei erakusten bazaie irakurri ahala haien buruari irakurritakoari buruzko galderak egiten, irakurritakoa askoz hobeto ulertzen dutela.

Irakurleak galdera hauek egin diezazkioke bere buruari: «Zer da ulertzen ez dudana? Zertaz ari da idatz-zati hau? edo Zer irakurri dut hona arte?» Irakurlea goranzko ereduak aldekoek uste zuten baina subjektu askoz ere aktiboagoa da. Irakurtzean, hainbat hipotesi eta uste sortzen ditu, testuaren gainerakoari aktiboki aurre egiten laguntzen diotenak, eta, testua ulertu ahala, hipotesi eta uste horiek egiaztatu edo arbuiatu egingo ditu.

IRAKURKETAREN XEDEA

Orain arte irakurketaz aritu gara fenomeno bateratua bailitzan. Egia esateko, bi irakurketa mota daude eta bakoitzak bere xedea, helburuak, estrategiak eta moduak ditu. Beraz, ez da zentzuzkoa irakurtzeko moduari buruzko arau bakar batean pentsatzea. Estrategia ezberdinak erabili ditzakegu testuaren ideia orokorra edo informazio zehatz bat bilatzeko, susmo bat egiaztatzeko edo ideia nagusien entresaka egiteko.

Esan daiteke, halaber, bilatuz gero aurkituko genituzkeenak baino irakurketa mota gehiago daudela, irakurle motak beste, izan ere.

Edozein modutan ere, irakurle ona helburuaren arabera irakurketa estrategia ezberdinak erabiltzen dakiena da. Hori dela eta, irakurlearen lehen egitekoa bere buruari zer irakurri behar duen galdetzea da, eta hortik aurrera xede horri egokitutako prozedura mentala erabili beharko du.

Adibidez, norbaitek jarraibide jakin batzuen irakurketak eskatzen duen arreta beraz irakurtzen badu egunkaria, azala bakarrik irakurtzen denbora luzea emango du. Baina jarraibide batzuk egunkaria irakurri ohi den bezala irakurtzen baditu, hots, testua gainetik, «diagonaletik», begiratu, seguraski ez ditu jarraibide horiek beteko.

TESTUAK DAKARREN INFORMAZIOA ANTOLATZEKO PROZEDURAK

Irakurriaren ulermena hobetzeko lagungarriak dira irakurleari testuaren egitura lineala, sekuentziala eta narratiboa bereiztea ahalbidetzen dioten prozedura mental eta teknikoak, baita testua kategoria hierarkizatuta egituratuta, era eskematiko eta artikulatuta, mentalki irudikatzea ahalbidetzen diotenak ere.

Horretarako erabili ohi diren hainbat teknika mental aztertuko ditugu.

.....

AZPIMARRATU

Irakurleek gehien erabiltzen duten prozedura izango da beharbada. Zalantzarik gabe, teknika honek ulermenari buruzko hainbat gaitasun eskatzen ditu, bereizi gabe erabiltzeak onura baino kalte handiagoa ekar baitezake.

Irakurgaiak berak ezarriko dizkigu azpimarraketaren helburuak. Ez dago teknika hau erabiltzeko era mekaniko eta bakarrik. Irakurleak era ezberdinean azpimarratuko du informazioaren bat soilik atera nahi badu edo testuaren ideia nagusiaz jabetu nahi badu. Hau argi ikusten da beste norbaitek azpimarratutako testu bat begiratzen dugunean. Berehala ondorioztatuko ditugu haren interesa eta intentzioa.

Zalantzarik gabe, teknika hau baliagarria da irakurlea ideien garrantziarekiko sentibera denean. Baina sentibera izateak ideiak irakurgaiaren eremu zabalean kokatzea eskatzen du. Askok ez dute eremu hori antzematen eta ideia partzial eta lotu gabeak azpimarratzen dituzte. Hori dela eta, lehen irakurraldian ez da ezer azpimarratu behar, edo zati esanguratsuak hartu behar dira irakur-unitate gisa, hala nola orrialdea edo idatz-zatia bederen.

Teknika honek badu muga bat, beste teknika batzuekin batera erabiliz gero erraz gaindi daitekeena: askotan idatz-zatian ez da ideia nagusia argi eta bereizita agertzen, bere osagai edo alderdietan garatua baizik. Halakoetan, alderdi nagusia zein den erabakitzea oso zaila izaten da, eta batzuetan ez da komeni gainera. Edozein modutan ere, idatz-zatiaren sortzaile den ideia inplizituki agertzen denean, baliabide onargarriena marjinean idaztea da. Horrela erraz aurkituko dugu eta, horretaz gain, ondoren oharpenen haritik irakurketa sintetikoa egiteko aukera ere izango dugu. Irakurketa sintetiko hau azpimarratutakoa irakurriz, eta are gehiago, azpimarratu gabeko datu eta alderdiekin, osatu eta zabal daiteke.

Beste teknika baliagarri bat testuko hitz nagusien entresaka egitea da, hauekin oinarrizko radiografia moduko bat osatuz. Kasu honetan, hitzek jada ikasitako gai bat birgogoratzen eta berrikusten laguntzen dute, makulu gisa.

GIDOIAK, AURKIBIDEAK ETA KOADROAK

Gidoiek eta aurkibideek komunean dute arestian aipatu teknikekin jatorrizko testuaren forma, egitura eta ideien ordena errespetatzen dituztela.

Hauen laguntzaz, irakurleak testua antolatzen eta egituratzen duen kontzeptuen bizkarrezurra bereiziko du. Funtsezko puntuak zehaztu, banan-banan aipatu eta, azpindizeen bidez, garatuko ditu. Gidoia testuan txertatzea ere baliagarria izan daiteke, epigrafeen izenburuak idatziz, hauek garatzen dituzten esaldiak zenbakituz, etab.

Beste batzuetan, berriz, beharrezkoa da informazioa testua ez den beste modu batean antolatzea, bai kategoriatan sailkatuz bai bertan agertzen diren ideien arteko harremanak nabarmenduz.

Testuak jorratzen duen gaiak bi aldagai kontuan hartzea eskatzen duenean, sarre-
ra bikoitzeko koadroak erabil daitezke.

Narrazio-testu bat adibide gisa hartuta, bertan agertzen den informazio esanguratsue-
na birkoka dezakegu bi alderdi kontuan hartuta: alde batetik, agertzen diren pertso-
nariak, eta bestetik, haiei buruzko hainbat datu, hala nola, itxura, profil psikologikoa,
ekintzak, ekintzak gertatzen diren lekuak, etab.

DIAGRAMA LINEALAK, ERRADIALAK ETA ZUHAITZ-DIAGRAMAK

Diagramak baliagarriak dira idazki batean agertzen diren ideien edo osagaien arteko
harremanak nabarmendu nahi direnean. Osagaien segida-ordena funtsezkoa da; diagra-
ma linealak erabil ditzakegu eta hauetan hainbat gertakari irudikatu, denbora-segidari
jarraikiz. Horixe da, adibidez, jarraibide-testuen kasua: urrats ezberdinak zein ordena-
tan egin behar diren funtsezkoa da heburua erdiesteko, hots, ataza egiteko.

Ideien arteko harremanak irudikatzeak alderdi gehiago kontuan hartzea eskatzen due-
nean, diagrama erradialak edota zuhaitz-diagramak erabil ditzakegu. Lehenengoetan
ideia nagusi bat abiapuntutzat hartu eta haren hainbat alderdi garrantzitsu garatuko dira,
erradioen zentroan agertzen denarekin harremana dutenak, betiere. Zuhaitz-diagrame-
tan ideia nagusia zuhaitzaren enborra da eta enborretik beste hainbat ideia nagusi edo
adar sortzen dira. Hauetatik,aldi berean, bigarren mailako adarrak sortzen dira. Esan
behar da, ordea, diagrama hauek erabilgarriak direla testuak ezarritako loturak erabat
baztertzailak eta autonomoak direnean, baina testu askorekin ez da hori gertatzen,
hau da, bertan agertzen diren ideien arteko harremanak konplexuagoak izaten dira.

MAPA KONTZEPTUALAK

Sare semantikoen eta mapa kontzeptualen bidez kontzeptu edo ideia bakoitzak
beste batzuekin duen harreman-sarea ikuska daiteke, irizpide ezberdinen arabera.

Horretaz gain, mapa kontzeptualek sare horren hierarkia erakusten dute, eta horren
arabera, ideia orokor eta nagusienak maparen goialdean agertzen dira, eta ideia zehatz
eta espezifikoenak, berriz, behealdean.

HEURISTIKA MENTALAK

Analogiek, metaforek eta ereduak ere lagun diezaiokete irakurleari testuak dakarren
informazioa era ezberdinetan berrantolatzen. Adibidez, hainbat fenomenori eta hauen
eragileei buruzko testu bat irakurtzen badugu, zuhaitzaren analogia erabil dezakegu.

.....

Arrazoiak erroetan irudikatuko genituzke, arazo nagusia enborrean, eta ondorioak, berriz, adarretan.

Baliabide hauek guztiak heuristika edo gaitasun mental gisa funtzionatzen dute eta testuetako informazioa antolatzen eta kodetzen laguntzen dute. Eskema ezagunak hartzen dituzte abiapuntutzat eta irakurlearendako ezezagunak diren gorputz teorikoetan barneratzen dira. Denborazko eta kausazko prozesuak eta hauen harremanak grafikoki adierazteak irakurleari laguntzen dio berez abstraktuak eta antzemateko zailak diren ideiak kode grafiko batera itzultzen.

ZENTZU KRITIKOA

Bestalde, subjektua mentalki inplikatzeko ez duen irakurketa sineskorra, oihartzun eta iritzi pertsonalak pizten ez dituen, ezin esan lan intelektualari dagokion teknika denik. Irakurlea beti da protagonista eta ordenagailu-programa sofistikatu eta adimendunek nekez ordezkatu ahal izango dute. Testuari zentzu pertsonal eta sakona emateko gaitasuna gizakiaren berezko dimentsioa da.

Ondorio gisa

- Irakurle gaituak irakurri ahala testuaren bertsio laburtua sortzen du mentalki. Prozesu honen alderantzizkoa, *ebaki eta itsatsi* izenekoa, ikasle askok erabiltzen dute, gaizki erabili ere, testuen laburpenak egiteko.
- Irakurtzen ari garen testuan agertzen diren kontzeptuen gaineko galderak egitea irakurtzeko estrategia egokia da.
- Testua irakurtzean zein helburu lortu nahi dugun, horren arabera izango da testua ulertuz irakurtzeko erabiliko dugun estrategia.
- Azpimarratzea teknika sinplea da, baina zuzen erabiltzeko, testua arretaz eta zehaztasunez irakurri behar da.
- Gidoiek, aurkibideek eta koadroek informazioa antolatzen eta testuaren literaltasunaz haratago ulertzen laguntzen digute.
- Diagramak eta mapak testua ulertzen laguntzen digute, kontzeptuak hitza eta espazioa uztartzen diren beste egitura batera aldatzea eskatzen baitute.
- Heuristika mentalak pentsamenduaren estrategiak dira, irakurleak aurretik dituen ezagupenen eta testuaren bitartez eskuratu behar dituen arteko zubilana egiten dutenak.
- Irakurle gaitua beti da kritikoa eta irakurketa pertsonala egiten du.



2

APLIKAZIO PRAKTIKOA

Lan honen bigarren zatian ulertzen irakasteko proposamen metodologiko bat egin nahi dugu, curriculumeko arlo ezberdinetako testuliburuak erabiliz, eta arlo guztietako irakasleak animatu nahi ditugu haien ikasleekin ulermenezko irakurketa lan dezaten.

Horrek ez du esan nahi testuliburua soilik bultzatu nahi denik ikaskuntza tresna gisa. Aitzitik, askotariko informazio iturriak, era guztietako euskarrietan, erabili behar direla uste dugu.

Ondoren, hainbat proposamen egingo ditugu, irakasleak testuliburua bi helbururekin erabil dezan: alde batetik, ikasleei irakurriaren ulermena lantzeko estrategiak irakasteko, eta aldi berean, dagokion irakasgaiaren edukiak irakasteko.



2.1 Ikasgaiaren edo unitate didaktikoaren egitura globala

Eskola-liburu baten bitartez ikasi nahi den edozein unitate didaktikok edo ikasgaik egitura tematikoa izaten du, izenburuan zehaztu eta definitzen dena. Egitura hau, plan orokor baten arabera antolatzen diren atalen bidez garatzen da, nahiz eta atalak autonomoak izan daitezkeen.

Hainbat ikerlanek egiaztatu dute ikasleari ikasgaiaren egitura ulertaraztea praktika baliagarria dela testua hobeto ulertzeko, ikasleak ikasi behar duen gaiari buruz alde aurretik dituen ezagupenak abian jartzen baititu.

Lan hau egiteko DBHko kurtso eta arlo ezberdinetako eskuliburuak erabili ditugu. Guztiek egitura ez dutela behar bezala markatua egiaztatu dugu eta, horregatik, batzuetan nekez bereizten dira gaiaren atal ezberdinak. Halakoetan, irakasleak alderdi hau ikasleekin landu behar du klasean, irakurketari ekin aurretik.

NOLA LANDU IKASLEEKIN IKASGAIAREN EGITURA

Xedea ikasleari praktika hau erakustea da, edozein gai ikasi behar duenean ohikotasunez erabil dezan. Batzuetan segurutzat jotzen da ikasleak irakurriaren ulermena lantzeko tresnak ezagutzen dituela, baina beti ez da hala izaten.

Ondoren ikaskuntza hau sistematizatzeko iradokizun batzuk aurkezten dizkizuegu:

Ikasgaiaren egitura identifikatu


Lehenbizi gai, ikasgai edo unitate didaktikoaren egitura azaldu behar dugu. Horretarako, ondoko urratsak egingo ditugu:

- Ikasgaiaren izenburua fitxa batean idatzi.
- Azpian, zerrenda moduan, atal bakoitzaren izena idatzi, eta atal bakoitzaren azpian, azpiatalena.
- Ondoren gaiaren eskemak, horrela aurkeztuta, egitura logikoa duen hausnartu behar da. Batzuetan, berrikusi ondoren, ustekabeak izango ditugu.

Testua ulertzen laguntzen duen tresna didaktiko bat ikasgaiaren *antolatzaile grafikoa* da. Irakasleak, ikasgaia prestatzerakoan, kontzeptuen arteko loturak eta hauek gaiaren ideia nagusiarekin dituztenak jasotzen dituen koadro bat presta dezake.

Ondoren adibide bat ikus daiteke:

1812ko gerrari buruzko zatiaren antolatzaile grafikoa




(D.J. RICHAGELS, D. J., McGEE L. M. eta SLATON, E.A., *El texto expositivo*, 40. orr)

.....

Komeni da ikasgaiaren antzematea zer motako barne-loturek egituratzen duten gaia. Autore batzuek *sintaxia* deitzen diote honi.

Adibide honetan, gaia egituratzen duten harremanak *kausaltatezkoak* dira.

Batzuetan gai baten egitura tematikoki aurkezten da, baina bere barne sintaxia, hau da, loturak, ez dira garbi azaltzen. Hori bera gertatzen da ondoko adibidean:



Adibide honetan ikasgai baten (bakteriak) egitura tematikoa agertzen da, baina bere barne sintaxia ez da agertzen.

Azalpenezko testuak egituratzen dituzten barne-loturei dagokionean, ondokoak bereizi behar dira:


- Deskribapen-testuaren egitura. Ideiak asoziazioaren bitartez lotzean datza.
- Kausazko testuaren egitura. Taldekatze eta serie kontzeptuez gain, osagaien arteko lotura kausalak agertzen dira.
- Arazo/ebazpen testu motaren egitura. Kausazko egiturarekin harremana du, zeren eta lotura kausala arazoan edota ebazpenean agertzen baita. Horrela bada, arazoak hautsitako eta ebazpenak birrezarritako kausazko lotura bat ager daiteke, edo bestela, ebazpenak arazo baten kausa blokea dezake.
- Alderatze/kontraktotasun testuaren egitura. Hauen osagai antolatzaile kopurua egileak testuan sartutako ezberdintasun eta antzekotasun kopuruaren arabera izango da.

Gaiaren egitura nabarmentzeko modua edozein izanda ere, hau da, aurkibidea prestatzeko erabiltzen den sistema, ikasleak aurreko ikasturteetan beste irakasgai batzuetan ikasitakoa edo beraren esperientzia dela-eta eskuratutako ezagutza aktibatu behar da.

Aurretik dituzten ideiak aktibatu

Gaiaren egitura aztertu ondoren, ikasgaiaren izenburua eta aurkibidea arbelean idatziko dira. Hori egin eta gero irakasleak minutu batzuk erabil ditzake gaia aurkezteko eta atal bakoitzaren edukia aipatzeko.

Ikus ondoko unitate didaktikoa adibide gisa:



Gaia aurkeztu ondoren, irakasleak atalak agertzen diren ordena zalantzan jarri eta ordena hori bakarra eta egokiena den eztabaida dezake.

Ariketa hau balia daiteke gaia ikasleen bizimoduarekin, esperientziekin eta aurretiko ezagutzarekin lotzeko.

Ikaslea hausnartzera bultzatuko duten galderak egin daitezke, adibidez: Zergatik *elikatzen dute* elikagaiak? Zer gertatzen da jaten dugunean? Berdin al da zer jaten dugun? Egia al da jaten duguna garena?

Ariketa hau hainbatetan egin eta gero, ez da beharrezkoa izango ikasleek atalen izenburuak paperean idaztea, nahikoa izango da bilatzearekin. Horrela, galdera bakoitzaren esanahi logikoa bilatzera bultzatuko ditugu eta horrek galderen memorizazioa erraztuko du.

Garrantzitsua da ikasleek gaiaren egitura orrialdez orrialde bilatzea: beharrezkoa da orriak eskuekin pasatzea eta haietan barna begiekin paseatzea. Ikasleek hau ohikotasunez egitea lortzen bada, *irakurri aurretiko estrategia* on bat eurenganaturik izango dute jada.

.....

Gaiaren egitura esanguratsuagoa egin

Gaiaren egitura orokorra antzeman ondoren, edukiz bete dezakegu, guretzat esanguratsuagoa izan dadin.

Horretarako, *irakurketa ozeanikoa* izeneko praktika egokia da. Praktika hau honetan datza: ikasleei eskatu behar zaie lerroaldearen hasiera, Erdiko zatiren bat eta amaiera irakurtzeko, gaiaren nondik norakoak azaletik bederen ezagutu ditzaten.

Denbora kontrolatzea garrantzitsua da. Adibidez, ikasleei esan dakieke: «Minutu bat duzue galdera hauek azaletik eta arin irakurtzeko. Bizpahiru ideia ateratzeko gai bazarete, irakurle onak zaretela erakutsiko duzue». Agian harrituko gara zer aurkitzeko gai diren ikusten dugunean. Lantxo hau etxean ere egin dezakete.

Ondoren, atera dituzten ideia edo ondorioak batera jarriko ditugu.

Gaiaren edo unitate didaktikoaren egitura orokorra

Irakurri aurretiko hurbiltze orokor honek *ikasgaiaren plana* antzematea ahalbidetzen du; hau da, ikasgaiaren barne logika eta egitura orokorra. Azaleko hurbilpena izanda ere, geure buruan itxaropenak, galderak eta hipotesiak sortarazten eta gaiari buruz lehendik genituen ideiak, jada ahaztu ditugunak azalerazten ditu.

Horren haritik, interesgarria da ikasgaiaren izenburua galdera guztien izenburuarekin lotzea eta ikasleei ulertaraztea hauek haren garapena direla, hots, ikasgaiaren planak egitura hierarkikoa duela. Ideien arteko hierarkiaren kontzeptua funtsezkoa da irakurriren ulermena hobetzeko.

Izenburuak irakurtzearen garrantzia

Eskuarki, izenburuak gaineratik begiratu eta berehala ekiten diogu testua irakurtzeari. Izenburuak nekez uzten du esanahi-arrastorik geure buruan.

Baina liburuko gaien edo galderen izenburuei hitz egiteko aukera emanez gero, deskubrituko dugu haien baitan duten informazio ugaria, segundo batez bederen arreta haietan jartzeko eskatuz, oraindik buruan ez ditugun ideiak aurkeztu nahi dizkigutelako.

Ikus dezagun adibide bat: unitate didaktikoak *Elikadura eta nutrizioa* izena du. Segundo batzuk ematen baditugu konjuzio baten bidez elkartutako bi izen hauen inguruan haus-

nartzen, berehala ondokoak bezalako galderak otuko zaizkigu: Gauza bera al dira elikadura eta nutrizioa? Zein da hauen arteko desberdintasuna? Aparatu digestiboari eta dieta eta elikagaiei buruzkoa ote da unitatea? Funtsezko galderak eginez gero (*zer, nor, nola, non, zergatik, zertarako...*) aurki bururatuko zaizkigu halako galderak: Zergatik elikatzen gara? Zertarako? Nola elikatzen gara? Laster ikasgaiaren edukiari buruzko nola-baiteko jakin-mina sentituko dugu. Horixe da orrialdeak pasa eta gaiaren edukia deskubritzeko une aproposa. Hain zuzen ere, hauei buruzkoa da:

- A. Nutrizio funtzioa.
- B. Dietaren garrantzia osasunari dagokionean.
- C. Elikagaiak eta haien kontserbazioa.
- D. Digestio aparatua.

Horren ondoren buru arin eta ikusminak honako galderak egingo ditu: Nolako harremana dute galderekin haien artean? Adibidez, A-k D-rekin edo B-k D-rekin, etab. Ikasgaiaren plana hiri baten plano bezalakoa da. Hiri bat bisitatzen dugunean planoak orientatzeko balio digu, hiriko zein lekutan gauden jakiteko. Bada, horixe bera da ikasgaiaren planaren zeregina testua bisitatzen dugunean: irakurketa gidatu eta orientatu.

Ondorio gisa

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako iradokizun praktikoak ondorioztatu daitezke:

Ikasgaiaren irakurketa prestatu:

- Antzeman ezazu ikasgaiaren egitura tematikoa edo barne sintaxia.
- Etzazu balekotzat jo liburuaren gida didaktikoak dakarren egitura eta egiazta ezazu zuk zeuk.
- Irudika ezazu grafikoki ikasgaiaren egitura, lotura mota nagusiaren arabera (asoziazioa, seriea, kausalitatea, arazoa/ebazpena, etab.).
- Ikasgaiaren ideia nagusien azalpena, 5-10 minututakoa, presta ezazu, kontuan hartuz ikasgaia oraindik ez dela landu.
- Irakurketa orientatuko duten galdera egoki eta motibatzaileak asma itzazu

Ikasgaia irakurri aurretik:

- Irudika ezazu gaiaren egitura arbelean edo horma-irudien, gardenkien edo *Power Point*-ekin landutako diapositiben eta abarren bidez.
- Ondoren, bultza itzazu ikasleak ikasgaiaren azaleko egitura ezagutzera testuliburua gaineratik begiratzuz.
- Saia zaitetz ikasgaiaren izenburua eta galderena laburki lotzen.
- Aurkez ezazu ikasgaiaren egitura era sinesgarrian eta motibatzailean, ikasleek duten testuarekin lotuta (lan paraleloa saihestu).

.....

- Tarteka itzazu galdera iradokitzaile eta motibatzaileak, lotu ezazu gaia ikasleek aurretik dituzten esperientzia eta ezagupenekin.
- Behar itzazu ikasleak *irakurketa ozeanikoa* edo azalekoa egitera, aurre-hipotesiak lantzeko.
- Izenburuen gaineko galderak egin itzazu: Zer esan nahiko du izenburu honek? Zeri buruzkoa izango da atal hau?

Kontuan hartu beharreko kontu orokorrak:

- Presta ezazu ikasgaia aurreiritzirik gabe, prestatzen duzun lehen aldia bailitzan; testu bat irakurtzen dugun bakoitzean, aurreko irakurraldietan erreparatu ez diegun alderdi berriak erakusten dizkigu.
- Ez ezazu uste ikasgaiaren egitura lantzea denbora galtzea denik; ikasleek hobeto ikasiko dute eta haien prestakuntza akademikorako oso baliagarriak izango zaizkien irakurriaren ulermenezko estrategiak erabiltzen irakasten ari zara.

2.2 Atalen egitura

UNITATE DIDAKTIKOAREN GALDEREN EDO ATALEN PROGRESIO TEMATIKOA IDENTIFIKATU

Ikasgaia egituratzen duten galderak edo atalak hainbat lerroaldez osatuta daude eta badute nolabaiteko entitatea edukiaren aldetik; lerroalde guztien artean bada lotura zuzena, eta orokorrean, baita nolabaiteko progresio tematikoa ere. Zalantzarik gabe, ikasgaiaren zatietako bakoitzaren progresio tematikoa aurkitzeak testu idatziaren edukia ulertzen laguntzen du.

Batzuetan oso erraza da egitura tematikoa antzematea, adibide honetan kasu:

Desnutrizioak ondorio larriak ditu osasunarentzat. Hasiera batean pisu galera handiaren bitartez adierazten da, gantza erreserba guztiak eta gihar-masak agortzen baitira. Larrua lehortu eta hoztu egiten da eta aurpegia espresiorik gabekoa bilakatzen. Honetaz gain, haurrei sabela neurritz gain puzten zaie. Gorputzaren defentsa sistema ahuldu egiten da eta gaixotasun infekziosoak jasateko arriskua oso handia izaten da. Pixkanaka gorputzeko organoak hondatu egiten dira. Hori dela eta, ez bada garaiz tratatzen, desnutrizioak heriotza eragiten du.

Gizateriak aurrerapen handia lortu du, baina hala eta guztiz ere, hau oraingoz konponbiderik ez duen arazo larria da. Zoritzarreko paradoxa da herrialde garatuetan

behar baina elikagai gehiago kontsumitzea eta, bitartean, munduko beste zonalde batzuetan desnutrizioaren eraginez egunero 100.000 lagun hiltzea, hauetatik 40.000 haurrak izanik.

Arazo hau konpontzea guztioi dagokigu. Alde batetik, elikagaiak bidaltzea egoera hau jasaten dutenei bizirik irautea ahalbidetzen dien presazko neurria da, baina epe luzerako neurriak ere hartu behar dira. Bada, herrialde hauek nekazaritza eta abeltzaintza garatu behar dituzte, bertakoak duintasunez bizi ahal izateko. Horretarako, herrialde garatuenetan erabiltzen diren aurrerapen teknologikoak ezinbestekoak dira.

(*Biología y Geología*. DBHko 3.a, Bartzelona, Edebé, 1995, 73. orr., itzulpena)

Atal honen egitura tematikoa:

- a) Lehen lerroaldean desnutrizioak osasunarentzat dituen ondorioak deskribatzen dira.
- b) Bigarrenean agerian jartzen dira arazoaren larritasuna eta herrialde garatuen eta munduko beste zonalde batzuen arteko paradoxa, elikagaien kontsumoari dagokionean.
- c) Hirugarrenean hainbat irtenbide proposatzen dira. Hauetako batzuk epe laburrerako dira eta beste batzuk, berriz, epe luzerako.

Unitate didaktikoaren beste galdera edo atal batzuetan, aldiz, ez da hain erraza egitura antzematea, azaltzen diren ideien zailtasun kontzeptuala dela-eta. Ikus dezagun ondoko adibidean:

Eguzki-erradiazioa eta klima

Klima-aldaketaren arrazoia da planetako zonalde guztiek ez dutela eguzki-erradiazioa intentsitate berarekin jasotzen.

Eguzkitik lurrazalera iristen den energia erradiatzaile kopurua erradiazio horren eraso-angeluaren araberakoa da. 3.3. irudian ikus daitekeen moduan, gehieneko eraso-angelua Ekuadorrean da (90°) eta gutxienekoa, berriz, poloetan (0°).

Horretaz gain, kontuan hartu behar dugu eguzki-erradiazioaren eraso-angelua aldatu egiten dela urtean zehar zonalde jakin batean. Horren arrazoia da Lurraren ardatzak Eguzkiarekiko duen inklinazioa aldatu egiten dela izar horren inguruan egiten duen orbitan zehar. Horregatik, zikloaren aldi batean bi hemisferioetako bat Eguzkirantz inklinatzen da eta beste aldian, berriz, bestea. Prozesu honek urtebeteko iraupena du, hain zuzen ere Lurrak Eguzkiaren inguruan bira bat emateko behar duen denbora. Horrela sortzen dira urtaroak (3.4 eta 3.5 irudiak).

(*Biología y Geología*. DBHko 3.a, Madril, McGraw Hill, 1994, 58. orr., itzulpena)

.....

Atal honen egitura tematikoa honako hau da:

- a) Lehen lerroaldean klima-aldaketaren arrazoiak azaltzen du.
- b) Bigarrenean eraso-angelua eta lurrazalera iristen den energia kopurua lotzen ditu.
- c) Hirugarrenean estazioak nola sortzen diren azaltzen da.

Egitura tematikoa simple samarra izan arren, baliteke ikasle batzuek antzemateko arazoak izatea, erabiltzen diren kontzeptuak direla-eta. Hain zuzen ere, praktika honek ulermena hobetzen laguntzen du, irakurleak zer ulertzen duen eta zer ez jakitea ahalbidetzen baitu.

Egitura tematikoa antzematen dugunean, hots, testua *zeri buruzkoa* den dakigunean, nahiz eta edukia zehatz-mehatz ez ulertu, berau ulertzeko pauso bat eman dugu jada. Gaia edozein dela ere, egitura errepikatu egiten da, definizioez, sailkapenez, loturez, adibideez eta abarrez osatuak baitago.

EGITURA TEMATIKOA ETA LERROALDEEN ANTOLAKETA

Arestian aztertutako adibideetan egitura tematikoa bat dator lerroaldeekin, baina batzuetan lerroalde berean bi ildo tematiko garatzen dira. Garrantzitsua da ikasleek jakitea hau ere gerta daitekeela. Ondoren adibide bat ikusiko dugu:

*1868ko irailean, jeneral talde bat altxatu egin zen, Serrano eta Primen gidaritzapean. Isabel II.a tronutik kendu eta behin-behineko gobernu osatu zuten. Gertaera honi **Iraileko iraultza** deitu zaio. Eragin zuten arrazoiak hauek izan ziren: erregimenaren hondatze politikoa, alde bate-tik, alderdi moderatuak bakarrik sostengatzen baitzuen, eta krisi ekonomikoa, bestetik.*

*Krisi ekonomikoak nekazaritzan (1868n gosetea izan zen) eta finantzetan (tren-enpresek diru galerak izan zituzten eta haien administrazio kontseiluetan altxamenduaren aldeko jeneralak eta politikariak zeuden) izan zuen eragina. Hirietan **Batzar Iraultzaileak** osatu ziren, sufragio unibertsala, subiranotasun nazionala eta prentsa eta elkartzeko askatasuna defendatzen zituztenak (I. agiria)*

Iraileko iraultzaileak hauteskundeak deitu, parlamentua osatu eta Konstituzio berri bat (1869) onartu zuten. Hiru berrikuntza ekarri zituzten Espainiako politikara: gizonzkoen sufragio unibertsala, kultu-askatasuna eta subirotasun nazionalaren printzipioaren defentsa mugagabea.

Nazioa subiranoa izanik, Gorteek aukera zuten monarkia edo errepublika nahi zuten erabakitzeko. Monarkiaren alde egin zuten eta, bilaketa nekezaren ondoren, Italiako printze gazte bat aukeratu zuten errege, Saboyako Amadeo.

(C. Sociales. DBHko 3.a, Bartzelona, Vicens Vives, 1998, 120. orr., itzulpena)

- a) Lehen lerroaldean bi ildo tematiko azaltzen dira:
 - 1868ko iraileko iraultzaren ideia nagusiak.
 - Iraultza eragin zuten arrazoiak.
- b) Bigarren lerroaldean beste bi ildo tematiko azaltzen dira:
 - Krisi ekonomikoak zein arlotan izan zuen eragina.
 - Batzar Iraultzaileak.
- c) Hirugarren lerroaldean hauteskunde deialdia, parlamentuaren osaera eta Konstituzio berriaren onartzea aipatzen dira.
- d) Laugarren lerroaldea Gorteek egin zuten errege aukeraketari buruzkoa da.

Kontuan hartu behar dugu egitura tematikoa ez dagoela testuan, irakurlearen buruan baizik. Beraz, prozesu subjektiboa da: ñabardura ezberdinak izan daitezke interpretazio aldetik, eta horren ondorioz, egitura gehiago edo gutxiago lotuko zaio testuari. Hau ere kontuan hartu beharko du ikasleak.

Aztertutako azken testuari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu lehen lerroaldeko bi ildo tematikoak bakarrean laburbil daitezkeela: *1868ko iraileko iraultzaren arrazoiak*.

Bi aukerak ere egokiak dira. Bata analitikoa da eta bestea, berriz, sintetikoa.

TESTUAREN INTENTZIOA

Bestalde, testu orok intentzio inplizituak dituzte, testuaren literaltasunean agertzen ez direnak. Horrelakoetan geure buruari galdetu beharko diogu: Zer esan nahi du egileak? Ikus dezagun adibide bat:

Mende honetan aurreko guztietan baino gauza gehiago asmatu dira. Aurrerapenen ugaltze honek zientziaren eta teknikaren garapen izugarria ekarri du eta horrek bizimodu tradizionalan aldatetako eragin ditu. Aipagarriak dira Medikuntzaren eta Genetikaren aurrerakuntza, energia-iturri eta material berrien asmakuntza eta ustiapena eta garraioen eta komunikabideen garapena. Horretaz gain, bai elektronikak, bai informatikak lan-mundua eta gerra egiteko modua goitik behera aldatu dituzte.

.....

Espazioaren konkista aurrerapen izugarri honen emaitzetako bat izan da. Espazio-lasterketa borroka militar, teknologiko eta propagandazkoa izan zen eta Gerra Hotzaren liskar-giroan kokatzen da. 1957n Errusiak lehen satelitea, Sputnik-a, orbitan jarri zuen eta urtebete beranduago EEBBek Explorer-a jaurti zuten espaziora. **Yuri Gagarin** errusiarra izan zen espaziora bidalitako lehen gizakia, 1961ean, baina amerikarrak izan ziren ilargira iristen lehenak, 1969n, Kennedy presidenteak hitza eman ondoren.

(Geografia e Historia. DBHko 3.a, Bartzelona, Edebé, 1998, 217. orr., itzulpena)

Honako galderak egingo ditugu:

- Zer esan nahi dit egileak bi lerroalde hauekin, ematen duten informazio zehatzaz gain?
- Gure bizitza aldatu duten deskubrimendu garrantzitsuez ari al da?


Izan ere, lehen lerroaldeak ideia hori transmititu nahi digu, baina ez bigarrenak. Hau aurreko lerroaldeari lotuta dago, baina hark ez bezela, munduko potentzia handiek eginitako espazio-konkistak eta espazio-lasterketak ekarri zuten berrikuntza azaldu nahi digu.

Arretaz egindako irakurketa selektibo eta hierarkikoak ahalbidetzen digu testuan intentzio inplizitua antzematea, literaltasun hertsitik haratago. Horregatik, ikasleei testuari galderak egiten eta irakurketaren aurrean jarrera aktiboa eta kritikoa izaten irakatsi behar diegu.


EGITURA TEMATIKOAREN IRUDIKAPEN GRAFIKOA

Galdera baten egitura tematikoa linealki irudika daiteke, ildo bati jarraitzen baitio. Ahalik eta hitz gutxien erabili behar da.


Jarri dugun lehen adibideari dagokion (30 orr.) grafiko lineala ondokoa izango litzateke:



Bigarren adibideari (31 orr.) dagokiona hau izango litzateke:



Hirugarren adibideak (33 orr.), berriz, ondoko irudikapen lineala izango luke:



Kontuan hartu behar dugu ikasgaiaren galdera arretaz irakurri eta ulertu duenak soilik antzemango duela irudikapen grafiko hauen zentzua.

.....

GALDERA APROPOSAK EGITEN IKASI

Liburuko ikasgaien atalek eskuarki inplizituki agertzen diren galderei buruzko azalpenak eta argibideak biltzen dituzte. Bada, irakurriaren ulermena lantzeko ariketa egokia da lerroaldeak adierazitakoari dagokion galdera asmatzea.

Ikus dezagun adibide bat:

Zirkulazio-aparatuak eta **odolak** elikagaiak eta oxigenoa biltzen dituzte heste eta biriketarik, eta gibelean eta gorputzeko zelula guztietan banatzen dituzte (bertan erre egiten dira energia lortzeko); ondoren, ehunetatik hondakinak jaso eta giltzurrunetara eramaten dituzte, gernuaren bidez botatzeko.

Horretaz gain, hormonak eramaten dituzte organo batetik bestera eta, odola gorputz osoan zehar barreiatuak dagoenez, lesio, zauri edo infekziorik izanez gero, horiek sortzen diren lekura joaten da, horiek osatzeko eta babesteko beroa, elikagaiak eta babeserako inmunitate-zelulak eramatera.

Era berean, odolak gure barneko tenperatura erregulatzen du eta koagulatzeke ahalmena du, beraz jeitsi ez dadin.

Prozesu honen guztiaren eragilea den bihotza giharrezko ponpa bat da eta odola bultzatzen du arterietan, zainetan eta ile bat bezain estuak diren kapilaretan barrena. Kapilareen hormek poro txiki-txikiak dituzte eta horietatik elikagaiak eta O₂ ehunetara pasatzen dira, baita ehunetako zelulen hondakinak ere.

(*Biología y Geología*. DBHko 3.a, Madril, 1993, Editex, 51. orr., itzulpena)

Galdera proposaren eredia:

Zer eginkizun dituzte odolak eta zirkulazio-aparatuak?

Hau da galdera egokia, atalean azaltzen den guztia biltzen baitu.

Ez da erraza ikasleei lerroaldearen eduki tematikoarekin bat datozen galderak egiten erakustea. Batzuetan oso galdera orokorrak egiten dituzte, eta beste batzuetan, berriz, galderak ez dute jasotzen lerroaldearen eduki tematiko osoa, zati bat baizik.

Ikus dezagun ondoko adibidea:

Parisko Itunaren bitartez bidea zabaldu zitaion Britainia Handiaren hedapen kolonialari. Frantziak Iparramerikako lurraldeak galdu zituen, besteak beste, eta Britainia Handiari eta Espainiari eman behar izan zizkien. Bestalde, Espainiak Florida eman behar izan zion Britainia Handiari. Frantziak uko egin zion Indianarna hedatzeari eta hori izan zen Indiaren menarapen kolonialaren hasiera.

(Geografia e Historia. DBHko 3.a., Bartzelona, Edebé, 1995, 68 orr., itzulpena)

Galdera hau egin dezakegu: Zer eragin izan zuen Parisko Itunak?

Galderak lerroaldearen eduki osoa jasotzen du, baina galdera orokorregia da. lerroaldearen hasiera besterik irakurri gabe ondoriozta daiteke erantzuna. lerroaldearen eduki hertsia kontuan hartuta, egokiagoa litzateke galdera hau: Zer ondorio izan zituen Parisko Itunak Frantzia eta Espainiarentzat?

Beste muturrean galdera partzialak aurki ditzakegu, testu osoa ez baino zati bat bakarrik kontuan hartzen dutenak. Kasu hori ondoko adibidean ikus dezakegu:

*Gure garuna organo biziduna da eta ikasteko eta bere egituraketa aldatzeko gai da. Praktikak abileziak garatzea ahalbidetzen du eta hauek automatismoak ezarriko dituzte. Horrela, pentsamenduen, memoriaren eta ideien sorkuntzan, mugimenduen koordinazioan edo garunaren beste edozein jardueratan aurrerapenak egin ahal izango dira. Praktika horrekin lotura dute bakoitzaren esperientzia pertsonalek, zeinak bizi duen kulturaren, gizarte eta familia-giroaren, finean, bakoitzaren zirkunstantzien arabera izaten diren. Honen guztiaren bidez **nortasuna** finkatzen da.*

(Biologia y Geologia. DBHko 3.a., Madril, Editex, 1994, 108. orr., itzulpena)

Galde dezakegu:

Zer egiten du gure garunak?

Galdera honek ez du aipatu lerroaldearen eduki osoa jasotzen, ez baitie erreferentzia zuzenik egiten beste eduki batzuei, gure nortasuna taxutzen duten faktoreei, adibidez.

Interesgarria da irakasleak alderdi hau ikasleekin lantzea eta haiek planteatzen dituzten galderak jaso eta lerroaldearen edukiarekin bat datozen ala ez ikustaraztea. Horretarako eskularruaren konparazioa erabil dezakegu: nola eskularrua eskuari, hala egokitu behar zaio galdera edukiari. Eskularrua handiegia bada, gal dezakegu eta txiki-egia izanez gero, eskua ez zaigu bertan sartuko.

.....

Gure ikasleei galderak egiten irakasten diegunean, egitura tematiko baten jatorria ondorioztatzen laguntzen diegu. Hurrengo urratsa galdera baiezko esaldi bihurtzea eta ikasten ari garen atalari izenburutzat jartzea izango litzateke.

Adibidez:

Galdera	Baiezkoa
Zein eginkizun dituzte odolak eta zirkulazio-aparatuak?	Odolaren eta zirkulazio-aparatuaren eginkizunak
Zer ondorio izan zituen Parisko Itunak?	Parisko Itunaren ondorioak

Argitaratutako eskuliburu batzuek zuzenean baiezko forma lantzeraz, hots, lerroaldeari zuzenean izenburua jartzera, bultzatzen gaituzte. Gure ustez, ordea, zeharbideak baditu abantailak, ikaslearen inplikazio intelektual handiagoa eskatzen baitu.

IRUDIZ LAGUNDUTA ULERTU

Merkatuan dauden testuliburu modernoetan askotariko argazkiak, grafikoak, marrazkiak, mapak eta bestelako ikusizko materialak agertzen dira ikasgai edo unitate didaktikoetan, testuaren informazioan eta egituran txertaturik. Horiek ere ulertu egin behar dira irakurritakoa ulertzeko. Beraz, ikasleei irakatsi behar zaie ere testuarekin batera doan hitz gabeko informazioak duen zeregina antzematen.

Ondoren, eskola eskuliburuetan maiz agertzen diren egoerak komentatuko ditugu:

- Irudia ilustrazio soil gisa.** Kasu hauetan, irudia ezabatuz gero, testuaren ulergarritasunari ez zaio ezer kentzen. Galdera askotan txertatzen dira edukiarekin lotutako gaiak lantzen dituzten irudiak edo galderarekin nolabaiteko harremana duen argazkiak.

Halakoetan irudiaren zeregina ez da hitzak ulertzen laguntzea, baizik eta ikaslea motibatzea, bere kultura aberastea, irudi batean zeharka islatzen diren kontzeptu abstraktuak ikustaraztea, etab.

- b) **Irudia adibide gisa.** Aurrekoaren aldaera da, baina eginkizun garrantzitsuagoa du. Hitzez azaltzen dena irudikatu nahi du. Halakoetan, irudiak duen adierazkortasuna lagungarria izan daiteke testuaren informazioa ulertzeko. Adibidez, Gizarte Zientzietako ikasgai batean, *langile-mugimendua* aztertzen duen galderaren ondoan 1900 urteko margolan bat agertzen da, langileen manifestazio bat irudikatzen duena. Bada, irudi honek ikasleei ahalbidetzen die proletalgoaren jantzeko ohiturak, jarrerak, keinuak, etab. ikustea.
- c) **Irudi adibide-emailea.** Aurrekoa bezalakoa da, baina badu ezberdintasun bat, eta da, eskuarki baliabide teknikoak erabili gabe ikusi ezin daitekeena erakusten duela, adibidez mikroskopioz behatutako kromosomen irudiak, bihotz-barrenaren ebakidura, satellite batetik hartutako luraren argazkia, etab.
- d) **Prozesuak irudikatzen dituen irudia.** Liburuetan badira hainbat irudi (argazkiak eta gehienbat marrazkiak) denboran zehar gertatzen diren prozesuak edo sekuentziak irudikatzen dituztenak. Adibidez, Natur Zientzien arloan, arnasa hartzeko eta botatzeko prozesua azaltzen duen biriken irudi bat, edo Gizarte Zientzien arloan, munduko populazioaren bilakaera azaltzen duena, etab.

Irudi hauek indargarri eta erredundantzia gisa erabiltzen dira eta testua ulertzeko lagungarriak izaten dira.

- e) **Analogiak dituzten irudiak.** Irudi hauek testua ulertzeko lagungarri izan nahi dute ikaslearentzat ezaguna den egoera analogo bat irudikatuz, adibidez, gizakiaren begiaren adierazpen grafikoa eta argazki kamera batena. Analogia honen bidez bi egoeren arteko antzekotasuna irudien bidez adierazi nahi da.
- f) **Kontzeptu bat irudikatzen duen irudia.** Ohikoena da eskolako eskuliburuetan eta eragin handia du ulermenean. Adibidez, Natur Zientzia liburuetan hipermetropiadun giza begiaren irudiak eta azalaren irudiak, dermisa eta epidermisa bereizita, agertzen dira; Gizarte Zientzietako liburuetan, berriz, mapa eta plano ugari agertzen dira: ibilbide komertzialak, Errege Katolikoek burututako bateratze-prozesua, inperio kolonialak, etab.
- g) **Prafikoak, koadro sinoptikoak, eskemak, etab.** Batzuetan grafikoetan irudiak eta hitzak batera agertzen dira. Kategoria horretan sailka daitezke koadro sinoptikoak, eskemak, mapa kontzeptualak, koadro taxonomikoak, etab. Horiek guztiek funtzio oso garrantzitsua dute, hitzezko materiala ulertzen laguntzen baitute. Ikusi behar da ea testu idatziari informazio osagarrikeri eransten dioten (adibidez, minbiziak erretzaileen artean duen eraginari buruzko datuak erakusten dituen grafika bat, osasunarentzat arriskutsuak diren ohiturei buruzko azalpen baten testuinguruan), edo, aldiz, hitzez ematen den informazio berberaren laburpena soilik adierazten duten (adibidez, Natur Zientzia liburu batean grafiko bat txertatzen da, non oso modu sinplean ikus daitekeen *estimuluak* jaso eta

.....

garunetik eta nerbio-sistematik pasa ondoren *erantzun-ondorioa* eman arteko prozesua.

Irudien tratamendua

Ikusi dugu zein garrantzitsua den testu idatzi batean txertatutako irudi eta grafikoetatik informazio osagarria ateratzen jakitea. Oso interesgarria da irakasleak ikasleei laguntzea lagungarri grafikoek betetzen dituzten funtzioen gaineko hausnarketa egiten.

Ondoren ikasleekin batera egin daitezkeen hainbat jarduera proposatuko ditugu:

1. jarduera

Osa ezazu ondoko laukia ikasgai honetako irudiek betetzen duten zeregina idatziz.

	Irudi soila	Adibidea	Kontzeptu baten irudikapena	Bestelakoa
1. irudia				
2. irudia				
3. irudia				
4. irudia				

Zure ustez, testua ulertzen lagunduko lukeen irudirik falta al da?

Ondorio gisa

Atal honetan esandako guztia kontuan hartuz, iradokizun hauek ondoriozka daitezke:

- Zure ikasleei hitzez-hitzezko informazioa eta informazio inplizitua bereizten irakatsi.
- Zure ikasleei egitura tematikoa antzematen lagundu (oinarrizko kontzeptuen progresioa ikasgaiaren ataletan zehar).
- Ikasleari bere ulermenaz ohartzen lagundu (Zer ulertzen dut? Zer ulertzen dut zatika? Zer ez dut ulertzen?).
- Ikasleei gaiaren lerroaldeetako intentzio inplizituak antzematen irakatsi (Zer adierazi nahi du egileak lerroalde hauetan? Zergatik dio hori?).
- Galderen egitura tematiko egokiak antzemateko gaitasuna landu ezazu (nahiz eta subjektiboak eta pertsonalak izan, batzuk besteak baino hobeto lotzen zaizkio edukiari).
- Bultza ezazu egitura tematikoen irudikatze grafikoa eta mentala.
- Ikasleei galdera egokiak, garrantzizkoak eta ulergarriak egiten irakatsi.
- Ikasleei irudiek eta grafikoek dakarten informazioa aintzat hartzen irakatsi.

2.3 Lerroaldeen egitura

Aurreko ataletan unitate didaktikoa lantzeko planteatu diren proposamen didaktikoak baliagarriak dira, halaber, unitatea osatzen duten lerroaldeak aztertzeko.

Ikusten dugunaren arabera, lerroaldea da jarraian dauden bi puntu eta aparteren artean edota idazkiaren hasieratik lehenengo puntu eta aparteraino dagoen esaldi multzoa. Ikus dezakeguna nabarmentzen dugu, zeren eta ikasgaiaren galderaren edo atalaren antolakuntzari buruzko informazioa eman eta hainbat galderari erantzutea ahalbidetzen baitigu, hala nola: Zenbat lerroalde ditu galdera honek? Zein lerroaldetan aurkitzen da halako informazioa?, etab.

Lerroaldea gertutik aztertzea bezain garrantzitsua da ulertzea zergatik egileak testua lerroaldeetan banatzen duen, esaldi guztiak jarraian idatzi beharrean. Honen arrazoia da lerroalde baduela nolabaiteko batasuna esanahiaren aldetik eta berau osatzen duten esaldiek elkarrekiko lotura tematikoa dutela. Horregatik, galdera hau egin behar diogu geure buruari: Zein da lerroalde honen ideia nagusia? Zeri buruzkoa da?

.....

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, J. L. Austin, Oxford-ko filosofoak *How to do things with words* (*Nola egin gauzak hitzekin*) izeneko liburua argitaratu zuen eta bertan hizkuntza eta berbaldia aztertzeke ikuspegi berria proposatu zuen. Bere ustetan, hizkuntzaren bitartez, errealitatea deskribatu ez ezik, geure hitza eman, mehatxuak egin eta esaldi eta hizkuntza enuntziatuen literalasunetik haratago doazen bestelako *gauzak* ere egiten ditugu.

Austin-en ikusmolde honek lerroaldearen barnean gertatzen dena aztertzeke aukera interesgarria ematen digu. Horregatik, ikasgai bateko lerroaldeak aztertzen ditugunean antzematen dugu batzuek argudioak ematen dituztela, beste batzuek, berriz, definizioak eta adibideak; badira sailkapenak edo zerrendapenak egiten dituzten lerroaldeak, baita zerbaiten kausak edo ondorioak balioztatzen edo azaltzen dituztenak ere. Hauxe da esan nahi duguna lerroaldearen egitura antzemateaz ari garenean.

Ikusmolde hau irakurriaren ulermena hobetzeko baliagarria da, lerroaldearen egituretara ohituz gero, geure buruan irakurtzen dugunari zentzua emango dioten eskema edo marko kontzeptualak sortzen baitira.

LERROALDEAREN IDEIA NAGUSIA

Ikasleak lerroaldearen ideia nagusia ezagutu behar du. Horretarako hainbat prozedura erabil daitezke:

- lerroaldeari izenburu egokia paratu.
- lerroaldea bere osotasunean kontuan hartzen duen galdera egokia egin.
- Ideia nagusia azpimarratu, testuan esplizituki agertuz gero.
- Ideia nagusia ez bada esplizituki agertzen, laburbiltze-lana egin behar da, eta ez hautapen-lana, aurreko kasuan bezala.

LERROALDEAREN GAIA IDENTIFIKATU

Batzuetan lerroaldearen gaia eta ideia nagusia nahasi egiten dira. Ideia nagusia, lehen esan bezala, lerroaldearen eduki orokorra laburbiltzen duen proposizio baten bidez adierazten da. Gaia, aldiz, lerroaldearen edukiaren ideia orokorra da, *zeri buruzkoa da testua?* galderaren erantzuna, hain zuzen ere.

Honenbestez, ondoriozta dezakegu lerroalde guztiek badutela hein batean edo bestean garatutako *gai bat*. Ikasleak, irakaslearen laguntzaz, lehenbailehen identifikatu behar du gai hori, horrek lagunduko baitio irakurtzen duenari zentzua aurkitzen eta lerroaldea hobeto ulertzen.

Eskuarki, lerroaldearen gaia irakurtzen hasita berehala antzematen da, baina eskarmen-turik ez duen ikasle batentzat ez da hain erraza, batzuetan esaldiaren egitura sintakti-koa bakarrik hartzen baitu aintzat. Ikus dezagun adibide bat:

Alemania bateratu ondoren bertan ezar zitezkeen eredu politikoen eztabaidagunea izan zen unibertsitatea: konfederazio-eredutik hasita (kontserbadoreena) errepubli-ka batu soilera arte (demokratena), federaziotik pasatuz (liberalena).

(Geografia e Historia. DBHko 3.a Madril, Editex, 1993, 127. orr., itzulpena)

Aurreko testuaren gaia estatu ereduak Alemanian bateratzearen aurretik da eta ideia nagusia, berriz, unibertsitatea, estatu eredu ezberdinen eztabaidagunea.

Irakurketa lantzeko ariketa egoki bat da gaia lerroaldearen zein esalditan eta beronen zein zatitan agertzen den identifikatzea. Normalean, gaia lehenengo esaldian agertu ohi da, askotan lehenengo hitzean ere agertzen da:

*Espainiar **sozialismoa** Pablo Iglesias tipografoaren inguruan sortu zen (bera hartzen da espainiar sozialismoaren aitatzat). Jaime Vera eta beste sozialista batzuekin batera Espainiako Alderdi Sozialista sortu zuen (**PSOE**) 1879n, eta geroago, 1888an, erakunde sindikal sozialista (Unión General de Trabajadores, **UGT**) sortu zuen.*

(Geografia e Historia. DBHko 3.a., Madril, Editex, 1993, 166. orr., itzulpena)

Aurreko lerroaldean gaia sozialismoa da, eta ideia nagusia, berriz, Pablo Igleziasek PSOE sortu zuela.

Ariketa egokia da, halaber, lerroaldea berrituratzea eta gaia beste leku batean agertzen denean, hasieran kokatzea. Hurrengo lerroaldean adibide bat ikus daiteke:

Mediterranean, gizakiek gutxien eraldatutako paisaia eremuetan, artea eta arte-latza bezalako espezieen basoak daude. Beste zonalde batzuetan, berriz, zuhaiz-ka da landare nagusia, zuhaitz-mozketa, udako lehorreek erangindako sua eta etxeko animalien larratzearen ondorioz.


(Biología y Geología. DBHko 3.a. Ed. McGraw Hill, 65. orr., itzulpena)

Aurreko testuan gaia lehenengo esaldian azaltzen da: Mediterraneoko paisaia. Ariketa burutzeko gaia lerroaldearen hasieran aipatu eta ondotik garatu egingo da. Komeni da ikasleak hauek bereizten trebatzea, eskemen, mapa kontzeptualen eta abarren bitartez.

.....

Gaia:	Mediterraneoko paisaia	
Garapena:	BEREZKO LANDAREDIA	arte eta artelatz basoak
	GIZA EKINTZAREN ONDORIOZ SORTUTAKO ZUHAIXKA-LANDAREDIA	- Zuhaitz-mozketa - Sua - Larratzea

Irakurriaren ulermena lantzeko ariketa egokia da ikasleak gaia identifikatzea eta lerroalde ezberdinek lantzen dituzten gaien arteko loturak aztertzea. Horretarako, ondoko eskema baliagarria izan daiteke:



lerroaldeen arteko loturak ezarri ahala geziak mugitu egin daitezke.

Ikasleari lerroaldeen arteko loturak bilatzea eskatuta, irakatsiko zaio testuak ez direla bata bestearen atzetik jarritako lerroalde multzoa, baizik eta lerroaldeek adierazten dituzten ideiek barne-koherentziatzko loturak dituztela haien artean.

Baina gerta daiteke ere testua gaizki egina izatea. Halakoetan, ikasleari jakinarazi behar zaio eta testua behar den bezala birsortu beharko da.

LERROALDEAREN BARNE-EGITURA: MOTAK

lerroaldearen gaia askotariko egituren bidez garatzen da. Ondoren testuliburuetan agertzen diren lerroaldeetako egitura nagusiak aztertuko ditugu. lerroaldearen egitura ezagutzeko lagungarria da irakurketa eraginkorragoa izan dadin.

Alderantzizkoak diren bi egiturarekin hasiko gara: egitura deduktiboa eta egitura induktiboa. Lehenengoan, definizio edo informazio orokor bat hartzen da abiapuntutzat eta ondoren adibideekin eta berariazko informazioarekin osatu egiten da. Aldiz, egitura induktiboetan, lerroaldea adibide edo informazio zehatzekin hasten da eta amaieran orokortu edo definitu egiten da, kasuan kasu.

Hainbat adibide aztertuko ditugu:

Egitura deduktiboak

Egitura deduktiboa duten lerroaldeek komunean dute proposizio nagusi orokor batekin (definizioa, kontzeptu baten sarrera generikoa, etab.) hasten direla eta ondoren datozen proposizio zehatz eta espezifikoagoek garatzen, zehazten eta argitzen dutela proposizio nagusi hau.

Ondoren egitura deduktiboa duen lerroalde bat ikus dezakezue adibide gisa:

Budismo tibetarra: VII. mendean sartzen da eta ezaugarri bereziak hartzen ditu. Monasterioetan garatzen da, lamen edo maisuen gidaritzapean. Budismo tibetarrak **budismo tantrikoa** eta bertako herri-sineskeria magikoak nahasten ditu. Formula sakratu edo otoitzak (mantrak) etengabe erreztatzea eta errito ugari izatea dira budismoaren bertsio honen ezaugarri. Dalai-lama da budismo tibetarraren buruzagi espirituala eta, 1642tik hasita Txinak Tibet bere egin zuen arte (1959), lurralde honetako botere tenporala ere bazuen. Estatu teokratiko bat ezarri zuen, non erlijioak eragin handia zuen arlo guztietan.

(Geografia e Historia. DBHko 3.a Madril, Bruño, 1994, 130. orr., itzulpena)

lerroalde honetan kontzeptu bat aurkezten da: budismo tibetarra, eta ondoren gai hori sakontzeko informazioa ematen da (lamen zeregina, mantrak, Dalai-lama edo buruzagi espirituala, etab.).

Egitura induktiboak

Arestian aipatu bezala, egitura induktiboa duten lerroalde datu zehatzak, adibideak, testuinguruan txertatutako informazioak, etab. dituzten proposizioekin hasi eta proposizio orokor batekin (definizio bat edo aurrekoak laburbiltzen dituen proposizio bat) amaitzen dira.

.....

Ikus dezagun adibide bat:

*Itsas-ekosistemetan gai organikoaren ekoizpena algek, landare fanerogamoek eta, batez ere, landare-planktonak egiten duten fotosintesiaren baitan dago. Landare horiek baitira **ekoizleak**. Horrenbestez, hondalean sortuko dira gainerako bizidunek bizitzeko behar dituzten elikagaiak.*

(*Biología y Geología*. DBHko 3.a. Bartzelona, Edebé, 1995, 122. orr., itzulpena)

lerroalde honetan informazioa mailakatuta dago. Ideia sail bat aurkezten zaigu eta lerroaldearen azken esaldian hauen guztien ondorioa dator, hau da, hondalea dela bizidun gehienak bizi daitezkeen tokia.

Zatikatzeko eta sailkatzeko egiturak

Egitura mota hau ere oso ohikoa da testulibuetan eta ikasleek erraz antzematen dute. Bere ezaugarri nagusia da kontzeptu orokor batean biltzen dituela berarekin loturarik duten osagaiak, zatiak, motak, taldeak, etab.

Batzuetan, egitura mota honek baliabide tipografikoak erabiltzen ditu (marratxoak, letrak edo zenbakiak) osagai ezberdinak bereizteko. Beste batzuetan, aldiz, irakurlea sailkapen edo zatiketa baten aurrean dagoela ohartarazten duten adierazpideak dituzte (*lehenik eta behin, alde batetik, etab.*).

Baina baliabide hauek ez dira beti agertzen. Orduan, irakurleak bere kabuz antzeman behar du lerroaldearen egitura, Gizarte Zientzietako adibide honetan kasu:

Harreman intraespezifikoen artean aipa ditzakegu:

- a) **Familia-harremanak:** hauen xedea ugalketa eta kumeak zaintzea da. Aldaera asko ditu. **Monogamoa:** arra eta emea, haien kumeekin batera; **poligamoa:** eskuarki ar bat hainbat emerekin eta hauen kumeekin; **matriarkalak:** emea bere kumeekin; **patriarkalak:** arra bere kumeekin; **kumeena:** kumeak elkarrekin bizi dira baina aita-amarik gabe.
- b) **Gregarioak:** animalia talde bat, familia berekoak ala ez, elkartzen da xede komun bat lortzeko. Xede hau lortutakoan banandu egiten dira normalean. Adibidez, hegazti-saldo migratzaileak.
- c) **Koloniak:** normalean aurreko komuna duten eta ugalketa asexularen bidez sortutako banakoen taldeak, fisikoki elkartuta daudenak. Polipo taldeak diren korallak horrela sortzen dira.
- d) **Sozietateak:** banakoen taldeak, non bakoitzak bere zeregina duen: ugalketa, defentsa edo bilketa. Horren adibide dira erlekumeak edo inurriak.

(*Biología y Geología*. DBHko 3.a., Madril, Editex, 1994, 183. orr., itzulpena)

Ikus daitekeenez, lerroalde honetan Espainiako bi habitat mota bereizten dira: habitat sakabanatua eta habitat kontzentratua.

Egitura sekuentzialak

Hainbat motatako egitura sekuentzialak daude. Hauen ezaugarria da hainbat egoera, gertakizun, ekintza eta abar elkarren segidan, kadentzia metakor batean, agertzen direla, eta eskuarki emaitza bat izaten dutela.

Erraza da halako egiturak antzematea, *lehenik eta behin, jarraian, ondoren, azkenik*, eta abarren moduko markatzaile gramatikalak izaten baitituzte. Markatzaile hauek berehala pentsarazten digute mota horretako lerroalde egituretan.

Beste batzuetan ez dugu halako arrastorik aurkituko, eta gaiak berak eramango gaitu sekuentzia batetik hurrengora, ondoko lerroaldean gertatzen den moduan:

Digestioak jaten ditugun elikagaiak txikitu eta mantenugai izeneko sustantzia ñimi-ño bihurtzen ditu. Hauek odol-hodietara pasatzeko bezain txikiak dira; odolak ehun guztietan barrena banatzen ditu; zelulen mintza zeharkatzen dute eta giza-zelula guztiek erregai gisa erabiltzen dituzte.

(*Biología y Geología*. DBHko 3.a, Madril, Editex, 49. orr., itzulpena)

Kausa-ondorio egiturak

Halako egitura duten lerroaldean proposizioek ondorioak eragiten dituzten kausak adierazten dituzte. Ikasleek erraz antzematen dituzte eta oso lagungarriak dira testua ulertzeko.

Ikus dezagun hurrengo adibidea:

Espainian, Ilustrazioaren garaiko ministro erreformisten eraginez, ekonomiak gorkada handia izan zuen, eta aldi berean populazioa hazi eta aberastasun iturriak garatu ziren.

(*Geografía e Historia*. DBHko 3. a. Ed. Editex, 83. orr., itzulpena)

Halako lerroaldean edukia, sailkatze egitura dutenena bezala, erraz irudika daiteke grafiko batean.

Alderatze eta aurkakotasun egitura

Halako egitura duten lerroaldeetan bi entitate, prozesu, gertakari, ekintza, pertsonaia... edo gehiagoren arteko antzekotasunak edo ezberdintasunak planteatzen dira.

.....

lerroalde labor honetan Al-Andaluseko herritarren bizimodua eta iparraldeko erreinu kristaueko herritarrena alderatzen dira.

Al-Andaluseko bizimodua hiritarra zen batez ere. Iparraldeko gune kristauean, berriz, ia ez zegoen hiririk.

(*Geografia e Historia*. DBHko 3.a, Madril, Bruño, 1994, 183. orr., itzulpena)

Egitura deskribatzaileak

Azkenik, badira aurreko kategoriatan sailka ezin daitezkeen lerroaldeak. Horietaz esan dezakegu orain arte aztertutakoak baino egitura horizontalagoa dutela; proposizioek koordinazio-harremanak dituzte haien artean. Haietako bakoitzak nolabaiteko burujabetasun semantikoa du besteekiko baina, hala ere, guztiek lotura tematiko estua dute lerroaldeak jorratzen duen gaiarekin. Hurrengo epigrafean horren adibide batzuk ikus daitezke.

Egitura deskribatzailea duten lerroaldeak tematikoki kateaturiko hainbat esaldiz osatuta daude. Esaldi hauek informazioa progresiboki ematen dute. Horrelako lerroaldeetan zaila da esatea zein esaldi dagoen besteen gainetik.

Jarraian ikus dezagun adibide bat:

Gizakiaren gorputzaren %65 ura da. Gizaki batek, egoera normalean, 2,5 litro ur behar ditu egunean. Hainbeste edateaz ez gara ohartzen, zeren eta kopuru honen erdia jaten ditugun elikagaiak ematen digute. Urak zeregin ugari ditu: gorputzaren erreakzio metabolikoak uretan gertatzen dira, sustantziak garraiatzen ditu, gure barne-tenperatura erregulatzea ahalbidetzen du eta hondakinak kanporatzen laguntzen du.

(*Biologia y Geología*. DBHko 3.a, Madril, Editex, 1994, 77. orr., itzulpena)

IRUDIKATZE GRAFIKOA

Idea guztiak hainbat modutan irudika daitezke. Hori ez dago soilik irakurlearen gaitasun intelektualaren baitan, irakurleak ideiak mentalki edo grafikoki adierazteko duen irudimenak ere zerikusia du.

Eskuarki, espazialak ez diren kontzeptuak mentalki eta grafikoki irudikatzeko irudikapen espazialak erabili ohi ditugu. Adibidez, denbora lerro horizontal baten bidez irudikatu ohi dugu eta bertan gertakari jakin baten aurrekoak eta ondorengoak kokatzen ditugu; lotura kausalak irudikatzeke kausa ezkerrean eta ondorioa eskuinaldean jartzen ditugu; osotasuna eta zatiak, berriz, irudi geometriko zatikatuz irudikatzen dugu, etab.

Batzuetan irakurleek ideiak ulertzen dituzte baina ez dute gaitasun nahikorik haiek ikusteko moduan irudikatzeke. Horretarako eskemak erabiltzen dira, ideiak eta lotura espazialak konbinatuz. Kontuan hartu behar dugu irakurle bakoitzak bere eskema egin behar duela, bertan ulertu duena islatuko baita.

Irakurle batzuek irudimen handia dute eta marrazkien bidez adierazten dituzte lerroalde bateko ideiak. Hau ere praktika egokia da. Baliabide hauek guztiak lagungarriak dira irakurriaren ulermena indartzeko.

Ondorio gisa

- lerroaldearen egitura ez dago testu idatzian, irakurlearen buruan baizik.
- lerroaldearen azpiko egitura antzemateak ulermena errazten du.
- Egitura batzuk oso argi agertzen dira testuliburuetan, beste batzuk antzematea, berriz, zailagoa da.
- lerroalde guztiek ez dute ondo antolatutako egitura bat.
- Orokorrean, egitura hierarkikoak eta hierarkikoak ez direnak bereiz ditzakegu. Ikasleek ezarri beharko dute lehen sailkapen hori.
- Ondoren, bestelako egitura hierarkikoak antzemango dituzte:
 - Egitura deduktiboak eta induktiboak
 - Sailkatze egiturak
 - Kausa-ondorio egiturak
 - Egitura sekuentzialak
 - Alderatze eta aurkakotasun egiturak
 - Egitura mistoak
- Geroago, ikasleak lerroaldearen gaia eta haren garapena identifikatzen ikasiko du.
- Azkenik, lerroalde batean agertzen diren ideiak eta hauen arteko loturak grafikoki irudikatzea lagungarria da ikasleak irakurritakoa uler dezan.

.....

2.4 Esaldien egitura

Ikasleek badute eskarmentua esaldien ulermena lantzen. Hizkuntza klasean ikasi dute esaldien egitura antzematen: subjektua, predikatua, osagarriak, menpeko esaldiak, etab. Baina guk proposatzen duguna ez da analisi gramatikala egitea, baizik eta lerroalde bat osatzen duten esaldiak lantzea, irakurritakoa hobeto ulertze aldera.

Ondoren hainbat jarduera proposatuko ditugu, ikasleari esaldien edukiaren inguruko hausnarketa egiten laguntzeko.

SUBJEKTUA ETA ADITZA ESALDIAN

Ikasleek jarduera hau Lehen Hezkuntzan hasita egiten dute eta oso baliagarria zaie zailak diren testuak irakurtzen dituztenean, testu horiek ulertzeko.

Funtsean, hizkuntzaren egitura sintaktikoaren osagai oinarritzkoenak subjektua eta aditza dira, hau da, norbaitek zerbait egiten du. Proba egin dezagun: testuliburuan aurkitzen dugun lehen esaldiaren subjektua nabarmenduko dugu; *Odola*, adibidez. Ikasleak subjektu honi buruzko galderak egingo ditu: Zein dira odolaren osagaiak? Zertarako balio du? Nola zirkulatzen du? etab.

Honako ariketa hau egin daiteke: esaldietatik hainbat subjektu aterako ditugu eta ikasleari ikasgaiaren testuinguruaren arabera gehitu daitezkeen hainbat aditz proposatuko dizkiogu. Ondoren, esaldia testuan agertzen moduan irakurriko dugu eta galderaren erantzuna emango dugu.

ADJEKTIBOAK, OSAGARRIAK ETA MENPEKO ESALDIAK

Aurreko ariketa egin ondoren, ikasleak adjektiboek, osagarriek edo menpeko esaldiek emandako informazioa osatu behar du, esaldiaren zentzu osoa antzeman arte.

Oso interesgarria da ikaslea honakoaz ohartuta egotea: adjektibo edo osagarriren bat ezabatuz gero, informazioa galduko da. Orduan bere buruari galdetu beharko dio: Informazio hori funtsezkoa da edo, aldiz, ezabatzen badut, esaldiak zentzua izaten jarraitzen du? Edo: Zer informazio eransten du ezabatutako adjektiboak edo osagarriak? Galdera hauen aurrean, ikasleak honako erantzunak eman beharko lituzke: «Osagarri hau ezabatuz gero, ez genuke jakingo...» edota «subjektuari adjektibo hau kenduz gero, ez nuke jakingo...»

Ariketa mota hau baliagarria da ikasleak hitzen balioarekiko eta ondo aurkeztutako informazioarekiko sentiberatasuna gara dezan.

IZENORDAINAK

Esaldi batean agertzen diren izenordainak aztertzea ariketa erraza eta lagungarria da. Hainbat ikaslek zailtasunak dituzte izenordainak aurkitzeko, hauek ordezkutzen duten izenarengandik gertu ez badaude.

Garrantzitsua da irakurtzen ari den ikasleak une oro jakitea zer esaten ari den eta nortaz esaten ari den, informazioaren haria gal ez dezan.

ESALDIAREN OSAGAIEN HURRENKERA

Azter ditzagun ondoko esaldiaren osagaiak:

Zurtoin batzuek, hazi ahal, mugimendu biribilak egiten dituzte helduleku bat aurkitzeko xedearekin (zirkunmutazioak).

(Biología y Geología. DBHko 3.a, Edit. Editex, 38. orr., itzulpena)

Esaldi hau irakurri eta hausnartzen badugu, erraz ulertuko dugu. Baina eskatzen badigute esaldia aldatzeko eta *zirkunmutazioak* hitzarekin hasten den bat osatzeko, ulertzeko esfortzu handiagoa egin beharko dugu. Adibidez: *Zirkunmutazioak zurtoin batzuek, hazi ahal, egiten dituzten mugimenduak dira, helduleku bat aurkitzeko xedearekin.*

Bistan denez, ia-ia hitz berberak erabili ditugu, nahiz eta hurrenkera aldatu (hizkuntzalari batzuek dioten moduan «azaleko egitura aldatu dugu, baina sakonekoa gorde egin dugu»). Ez ditugu nahastu behar ariketa hau eta esaldi batek adierazten duena gure hitzekin berresatea. Azken hau ere ulermena lantzeko ariketa ona da, baina esfortzu txikiagoa eskatzen du. Hori frogatzeko ikasleei ondoko bi galderak planteatuko dizkiegu:

- Berrantola ezazu esaldi hau, ahal den heinean hitz berberak erabiliz. Esaldi berriak hitz honekin hasi behar du:.....
- Zure hitzekin azal ezazu esaldi honetan adierazitakoa.

Garrantzitsua da ikasleei hausnartzen laguntzea. Hori dela eta, komeni da esatea esaldia zein hitzekin hastea nahi dugun.

.....

Ondorio gisa

- Garrantzitsua da subjektu-predikatu egituraren inguruan hausnarketa egitea.
- Subjektuari edo aditzari galderak egitea lagungarria da hobeto ulertzeko.
- Testua ulertzeko lagungarria da subjektuari adjetiboak eta mugatzaileak kentzea, baita aditzari osagarriak kentzea ere, eta ondoren balioztatzea esaldiari zentzua emateko beharrezkoak diren.
- Ulermena lantzeko ariketa egokia da esaldiak berridaztea, ahal den heinean hitz berberak erabiliz
- Irudimenak zeregin garrantzitsua du kontzeptuak eta lotura abstraktuak ulertzeko orduan.

BIBLIOGRAFIA

- BAUMAN, J.F. (ed.), *La comprensión lectora*, Madril, Visor, 1990.
- CABRERA, F., *El proceso lector y su evaluación*, Bartzelona, Laertes, 1994.
- CAIRNEY, T.H., *Enseñanza de la comprensión lectora*, Madril, Morata. MEC, 1992.
- COLOMER, Teresa, *Enseñar a leer, enseñar a comprender*, Madril, Celeste-MEC, 2000.
- COOPER, J.D., *Cómo mejorar la comprensión lectora*, Madril, Visor, 1998.
- FRY, R., *Cómo sacar provecho de tu lectura*, Leon, Everest, 1999.
- GALERA, Francisco, *Aspectos didácticos de la Lectoescritura*, Granada, Grupo Editorial Universitario, 2001.
- LEWIS, C.S., *La experiencia de leer*, Madril, Alba, 2000.
- MAYER, Richard E., *Psicología de la Educación. El aprendizaje en las áreas de conocimiento*, Madril, Prentice Hall, 2002
- RIPALDA GIL, Julio, *Cuaderno para mejorar la comprensión lectora*, Madril, Eos, 1998.
- ROMERO, J.F. y GONZÁLEZ, M. J., *Prácticas de comprensión lectora*, Madril, Alianza, 2001.
- RUEDA, Mercedes I., *La lectura*, Salamanca, Amarú, 2003.
- RUEDA, Rafael, *Recrear la lectura*, Madril, Narcea, 1999.
- SÁNCHEZ, Emilio, *Los textos expositivos*, Madril, Aula XXI. Santillana, 1993.
- SARTÓ, Montserrat, *Animación a la lectura con nuevas estrategias*, Madril, SM, 1998.
- SMITH, Frank, *Para darle sentido a la lectura*, Madril, Visor, 1997.
- SOLÉ, Isabel, *Estrategias de lectura*, Bartzelona, Graó, 2001.
- TOCHINSKY, L. y SIMÓ, R., *Escribir y leer a través del currículum*, Bartzelona, ICE, Horsori, 2001.
- VVAA, *La educación lectora*, Madril, F. Germán Sánchez Ruipérez, 2001.
- VVAA, *¿Dónde están los lectores?*, Salamanca, F. Germán Sánchez Ruipérez, 1998.
- VVAA, *Animar a escribir para animar a leer*, Salamanca, F. Germán Sánchez Ruipérez, 1999.
- VVAA, *Comprensión lectora y memoria operativa*, Bartzelona, Paidós, 1999.
- VVAA, *Hablar y escribir para aprender*, Madril, Síntesis, 2000.
- VVAA, *La inteligencia práctica*, Madril, Aula XXI. Santillana, 2002.
- VVAA, *Estrategias de aprendizaje*, Madril, Pirámide, 2002.
- VVAA, *Comprensión Lectora*, Bartzelona, Graó, 2001.

.....









sorta **Urdina**

Blitz **Hezkuntza** **Departamentua**

1. **Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa**
Hobetzeko gakoak
2. **Eskolako liburutegia nola antolatu**
Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. **Sailkapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumentan**
Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiz gai antolatzeko jarraibideak
4. **Eskola liburutegiaren informatizazioa. ABIES 2.0 programa**

sorta **Berdea**

Blitz **Eskolan**

1. **MARIANO CORONAS Eskolako liburutegia**
Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. **VÍCTOR MORENO Irakurketa, liburuk eta irakurtzera bultzatzea**
Hausnarketak eta proposamenak
3. **VILLAR ARELLANO YANGUAS Liburutegia eta ikaskuntza autonomia**
Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa
4. **M^a JESÚS ILLESCAS Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu**
Erabiltzaileak iprestatzen *(inprimatzekoa)*

sorta **Horia**

Blitz **con la Lectura**

1. **Ulermenezko irakurketa eskola curriculumean**
Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
2. **JESÚS AMADO MOYA Hizkera zientifikoa eta ulermenezko irakurketa zientzien arloan**
(inprimatzekoa)
3. **ÁNGEL SANZ MORENO Ulermenezko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak**

BLITZ

Liburutegiko sagua

ESKOLAKO LIBURUTEGIKO BILDUMA



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua



9 788423 524433